


XVII

**Literatur lehiaketa
haur eta gazteentzat
euskaraz**

**Certamen literario
infantil y juvenil
en euskera**



2006

BARAÑAINGO UDALA
EUSKARA ARLOA



AYUNTAMIENTO DE BARAÑAIN
ÁREA DE EUSKERA



Argitaratzen diren lan hauek Barañaingo Udalak 2006ko udaberrian antolatutako haur eta gazteentzako literatur lehiaketan izan dira sarituak. Guztira 289 lan aurkeztu ziren eta epai-mahaian pertsona hauek egon ziren:

Presidentea

Floren Luqui Iribarren

Udalaren Euskara Kontseilukidea

Koldo Laskibar

Alaitz DBH Institutuko irakasleak

Jokin Muñoz

Maite Gorospe

María Ángeles Arregi

Alaitz LH Ikastetxe Publikoko irakasleak

Iñaki Andueza

José Luis Ladrero

Ika Sahats euskaltegiko irakasleak

Aitziber Garralda

Aszen Argandoña

José Ramón Olano

Josu Asumendi

Josu Mujika

Estos trabajos que ahora se publican han sido premiados en el certamen literario infantil/juvenil en euskera, organizado por el Ayuntamiento de Barañaín en la primavera de 2006. En total se presentaron 289 obras, y el jurado estaba formado por las personas citadas arriba.

ARGITALPENA / EDICIÓN

Barañaingo Udala-Euskara Arloa / Ayuntamiento de Barañaín-Área de Euskera

DISEINUA / DISEÑO

HEDA Comunicación

INPRIMAKETA / IMPRESIÓN

Gráficas ONA

L.G. / D.L.

NA. 2515/2006

Aurkezpena

Euskaraz pentsatu, idatzi eta bizitzea.

Hitzaurrea jarraian irakurri ahalko dituzuen kontakizunen egileei zuzendua dago, batez ere. Lehenik eta behin, **ESKERRAK** eman nahi dizkiet, eskerrik asko kateatutako hizki hauek oparitzeagatik, alaitasun eta bizitasun hau emateagatik, eskerrik asko zuen irribarrearengatik eta guk ere irribarre egitea lortzeagatik.

Espero dut liburu hau den bezala gordetzea; altxorra baita, denborarekin balioa galtzen ez duena, irabazten baizik. Egunen batean, urte batzuk barru, kontakizun hauek irakurriko dituzue berriro eta irribarre egingo duzue, berriro; lotsatu samarrak egingo duzue, akaso, baina, barnetik, harro-harro. Harro-harro, batere erraza ez delako paper zuri baten aurrean eseri eta hizkiz, sormenez betetzea; harro-harro, euskara, aspaldi-aspaldiko hizkuntza baina, aldi berean, gaur-gaurkoa, guztiona dena, egunetik egunera berreskuratzen ari delako zuena bezalako ekarpenei esker.

Euskaraz irakurri, idatzi, pentsatu eta bizitzea da zerbait nafar guztiok egin ezin izan duguna, euskara gure hizkuntza bada ere; erabili ezazue, beraz, faborez! Euskara maite dugunok beti eskertuko dizuegu hori.

Ez zarete etorkizuna soilik, oraina ere baitzarete, batez ere. "Bidegile, ez dago biderik; ibiltzean egiten da bidea".

Besarkada bero bat eta eskerrik asko berriro.

Presentación

Pensar, escribir y vivir en euskera.

Esta introducción va dirigida principalmente a los autores de los relatos que a continuación podéis leer; y en primer lugar quiero darles las **GRACIAS**, gracias por regalarnos estas letras encadenadas, esta alegría y vitalidad, gracias por vuestra sonrisa y por hacernos sonreír.

Espero que guardéis este libro como lo que es, un tesoro, que no pierde valor con el tiempo sino que lo aumenta. Un día, de aquí a unos años, volveréis a leer estos relatos y también sonreiréis, quizá un poco avergonzados pero espero que en vuestro interior orgullosos. Orgullosos porque no es fácil sentarse delante de una hoja en blanco y rellenarla de letras con creatividad, orgullosos por contribuir a que el euskera, una lengua milenaria pero a la vez moderna que es de todos y todas, se recupere día a día con aportaciones como la vuestra.

Leer, escribir, pensar y vivir en euskera es algo que no todos los navarros y navarras hemos podido hacer a pesar de ser nuestra lengua; hacedme el favor de utilizarla. Quienes amamos nuestra lengua siempre os lo agradeceremos.

No sólo sois el futuro, sino principalmente el presente. "Caminante no hay camino, se hace camino al andar".

Un abrazo sincero y gracias de nuevo.

Iz. / Fdo.

FLOREN LUQUI IRIBARREN

**EUSKARA ARLOKO ZINEGOTZI ARDURADUNA
CONCEJAL RESPONSABLE DEL ÁREA DE EUSKERA**





Xaxi katukumea

Garazi Retegi Goñi

I. SARIA: Lehen Hezkuntza 3. maila

IER PREMIO: Educación Primaria 3º curso

Bazen behin mendi batean bizi zen Xaxi, konkretuki mendiaren puntako zuhaitz batean. Xaxiren amak etxetxoa zuhaitzaren azpian egin zuen eta txori batzuek zuhaitzaren adar batean egin zuten kabia. Xaxi jaio zen egunean txori txiki bat arrautzatik atera zen, Gorri zuen izena. Xaxi marroia, polita eta sudur beltza da. Gorrik luma gorriak, txuriak eta grisak ditu; moko luzea dauka. Gorrik hegan egiten ikasi zuenean Xaxiren gainean hegan egiten zuen, eta Xaxi harrapatzen saiatzen zen.

Egun batean, 2 urte zituztenean, buelta bat ematera joan ziren. Gurasoak gabe. Okerreko bidea hartu zuten, herrikoa zen. Beraiek jarraitu zuten bidea, konturatzen ez zirelako. Hortik 10 minutura ailegatu ziren, eta susto galanta hartu zuten biek. Baina aurrera jarraitu zuten.

Herrian kotxe bat ondo-ondotik pasa eta izaturik etxe batean sartu ziren.

Etxeko emakumeak katua eta txoria hartu eta jaten eman zien. Jarraian emakumea sabaira joan zen txoriarentzat kaiola bat hartzera. Kaiola jaitsi zuen eta txoria sartu zuen. Emakumea hizketan hasi zen:

- Zuek biak nongoak zarete?

Hurrengo egunean, emakumeak, txoria eta katua libre utzi zituen. Bidean txakur batekin egin zuten topo. Txakurrak atzetik joan nahi zuen baina bere jabeak ez zion uzten. Ez zuten etxeko bidea aurkitzen. Bat-batean, mendia ikusi zuen txoriak.

Mendira joan zen eta otsoak eta azeriak beraien atzetik zihoazen. Konturatu zirenean berandu zela korrika eta korrika hasi ziren. Libratu zirenean herrian zeuden. Berriz mendia igotzen hasi ziren. Gaua etorri zen eta lo egin zuten.

Hurrengo egunean bidea jarraitu zuten. Goraino ezin ailegatu amona zahar bat zebilen neska txiki batekin. Amona zaharrak esan zuen:

- Begira ze katu eta txori? Nongoak zarete?

Katuak erantzun zion:

- Miau, mendiko puntakoak gara.

Neska txikiak esan zuen:

- Amona, eramango ditugu etxera?

-Bai!

Etxera itzuli ziren, bakoitza bere amarekin, negar ere egin zuten. Eta handik aurrera oso ongi bizi izan ziren.

Hala bazan ez bazan poza sar:

Pokima eskimala

Oihane Lasheras Zapata

I. SARIA: Lehen Hezkuntza 3. maila

IER PREMIO: Educación Primaria 3º curso

Orain duela urte gutxi, hego poloan bizi zen eskimal bat. Pokima zuen izena. Pixka bat potoloa zen eta baxu samarra zen. Begi txikiak zituen eta hortz handiak zituen Pokimak.

Pokima egunero joaten zen arrantza egitera. Gaur ere joan da, zulo bat egin du lurrean eta ura atera da. Kainabera hartu, sartu du uretara eta arrain txiki bat atera du uretik. Ondoren arrain er-



XVII Certamen literario infantil-juvenil en euskera

taina atera du. Azkenik arrain handia harrapatu du. Gero foka bat atera du uretik. Fokak begiratu dio Pokimari lehenengo, eta gero arrainei. Pokimak arrainak eman dizkio eta gustura jan ditu. Ondoren jolastera joan dira. Esan dio Pokimak fokari:

- Itxaron hemen, orain nator:

Fokak itxaron du esanez:

- Uf, uf, uf!

Etorri eta baloi batekin jolastu gara. Gauza asko badakit egiten, adibidez: baloia sudurrearekin hartzen dut, aletekin jaurtitzen dut...

Oso ondo pasatu dut:

- Bihar ikusiko zaitut, agur!

Beste egun batean berriz ere ikusi zuten, eta amak salda beroa prestatu zien aitarekin, eta renoa harrapatu zuten.

Afari goxoa izan zuten denek. Baina fokak kezka aurpegia zeukan eta galdetu zion Pokimak:

- Zer gertatzen zaizu?

Berak esan zion:

- Uf, uf, uf!

Aitak foken hizkuntza bazekien eta esan zuten:

- Fokak bere kumetxea aurkitu nahi du.

Beste egun batean errekarera eraman zuten foka bere kumetxoarekin.

Eta pozik bizi izan ziren Pokima eta foka kumetxoarekin.

Lore itsusia

Amaia Izar Leatxe Larunbe

I. SARIA: Lehen Hezkuntza 3. maila

IER PREMIO: Educación Primaria 3º curso

Bazen behin lore txiki bat. Lorea oso itsusia zen eta denek esaten zioten: "Aizu! Ez zapaldu gure lurra!! Hain itsusia zarenez ez duzu lagunik izango".

Orduan lorea negarrez hasten zen:

- Ai ama!! Zergatik naiz horren itsusia!!

Bihar hemendik beste lorategi batera joango naiz.

Orduan beste lorategi batera joan zen. Lore asko zeuden eta lorategira iritsi zenean denek esan zioten:

- Kaixo!! Hona bizitzera zatoz?

Eta loreak erantzun zien:

- Bai, nik Emilia dut izena.

Orduan beste lorategian gertatu zena kontatu zien eta batek esan zuten:

- Ni zure laguna izango naiz.

Eta beste batek:

- Ni ere bai.

Beste batek:

- Eta ni.

Orduan denek "Ni ere bai" esaten zuten eta loreak negarrez esan zuten:

- Lagunok, eskerrik asko!

Eta festa bat antolatu zuten. Orduan...

Beste lorategiko loreak festa bat zegoela konturatu ziren eta batek esan zuten:

XVII. Literatur lehiaketa haur eta gazteentzat euskaraz

- Festa bat dago, eta guk festa guztietara joan behar dugu. Lorategitik atera eta Emiliaren lorategira joan ziren. Eta... batek:
 - Emilia da!! Begira, Emilia da!!
- Eta Emiliaren lagunek beste lorategikoak ikusi zituzten eta esan zuten:
 - Aizue, zuek zarete Emiliaren lorategikoak! Zoazte hemendik!!
- Orduan korrika joan ziren beren lorategira eta batek esan zuen:
 - Emiliari barkamena eskatu behar diogu!!
- Eta Emiliari barkamena eskatu zioten.
- Azkenik Emilia polita egin zen, eta senar bat eta ume asko izan zituen. Handik aurrera pozik bizi izan ziren.

Gaztelu suntsiezina

Ander Ruiz Mauleon

2. SARIA: Lehen Hezkuntza 3. maila

2° PREMIO: Educación Primaria 3° curso

Bazen behin aspaldi-aspaldi herri txiki bat. Herri horretan gaztelu sendo, eder, handi eta suntsiezin bat zegoen. Herrian oso pozik bizi ziren, betidanik. Gazteluan errege bat zegoen eta soldaduak ere bai. Herriak 50 biztanle inguru zituen, eta mendiz inguratutik zegoen. Egun batean, lasai-lasai zeuden denak. Baina bat-batean, zalaparta izugarria entzun zen. Erromatarrak ziren: herritarrei gauzak kentzen ari ziren. Ondoren, erregeak soldaduei esan zien:

- Bildu soldadu guztiak eta joan erromatarrak erasotzera!

Ondoren soldaduak erasotzera joan ziren, eta irabazi zuten. Soldaduak gaztelura bueltatu ziren eta erregeak festa izugarria antolatu zuen. Herritar guztiak gonbidatu zituen garaipena ospatzeko. Handik aurrera oso zoriontsu bizi ziren. Egia bada sakelara sar:

Neska txiki bat

Leire Vergara Contreras

2. SARIA: Lehen Hezkuntza 3. maila

2° PREMIO: Educación Primaria 3° curso

Orain duela urte asko etxe batean bizi zen neska txiki bat. Neska hori txikia, baxua, argala, ile luze eta horikoa, begi urdinekoa eta 9 urtekoa zen. Neska horrek altua izan nahi zuen baina berak ez zuen jaten. Egun batean farmaziara joan zen, eta galdetu zuen:

- Aizu! Daukazu zerbait altua izateko?
- Barkatu, baina ez.

Entzutean hori neska negarrez hasi zen, eta etxera joan zen. Orduan etxean bilatzen hasi zen. Aurkitu zuenean botila, edan eta altua izan zen, baina orain erraldoia da; orain txikia izan nahi du,





XVII Certamen literario infantil-juvenil en euskera

orduan farmaziara berriro joan da, eta esan du:

- Mesedez, txikia izateko daukazu zerbait?
- Barkatu, baina ez.

Orduan neska berriz negarrez hasi da eta etxera joan da. Berriz bilatzen hasi da, eta sobre bat aurkitu du eta edan du.

Azkenean, txikia izan arren, orain bere familiarekin bizi da poz-pozik.

Urrezko eraztuna

Miren Jiménez Muñoz

2. SARIA: Lehen Hezkuntza 3. maila

2º PREMIO: Educación Primaria 3º curso



Orain dela asko, hiru mutil, Juan, Albaro eta Xabier; bizi ziren beraien osaba erotuaren eta beraien izeba Peparen etxean. Hiru mutilak bihurriak ziren, beti dena hankaz gora jartzen zuten. Eta inoiz ez zuten jartzen bere tokian.

Egun batean konturatu ziren osaba zerbait bilatzen zegoela. Eta Juanek galdetu zuen:

- Baina zer egiten ari da osaba?
- Zerbait bilatzen. Goazen galdetzera.

Xabierrek galdetu zion:

- Osaba, zer egiten ari zara?
- Eraztun bat bilatzen. Nahi duzue aurkitu? Beste mundu batera joan behar zarete.
- Bai, joango gara! Oso erreza izango da!!!
- Ez da hain erreza, zuek esaten duzuen bezala. Beno, joan nahi baduzue sartu ate horretan.
- Agur, osaba!!

Eta hantxe sartu ziren. Ordu batzuk ondoren...

Han zeuden, dena oso itsusia zen! Albarok esan zuen:

- Beitu, hor dago eraztuna! Goazen hartzera!

Joan ziren, eta Tiko izeneko lapur batek hartu zuen eta esan zuen:

- Kaixo lagunok, bilatzen duzue hau? Ja, ja, ja!!!!
- Eman oraintxe bertan!! Harrapatuko zaitugu!

XVII. Literatur lehiaketa haur eta gazteentzat euskaraz

Oso ona izango zen harrapatzea baina bestela ez zen egongo ipuinik. Ondoren lehoi hitzun on batekin topo egin zuten. Eta esan zien lagunduko zela. Egunak pasa, egunak etorri, Tikoren kobazulo sekretua aurkitu zuten eta eraztuna lortzeko 2 aukera eman zizkien. Bata, 10.000 euro ordaintzea, eta bigarrena, borroka bat izatea eta irabazten duenak eraztuna gelditzen zuen. Haiek borroka aukeratu zuten.

Azkenean irabazi zuten, eta etxera ailegatu ziren. Galdetuko duzue: "zertarako zen eraztuna?" Ba, balio zuen osaba erotua normal jartzeko. Eta handik aurrera ongi bizi ziren hiru mutilak eta osaba-izebak.

Galaxiatik bestaldera

Garazi Azkoaga Iholdi

I. SARIA: Lehen Hezkuntza 4. maila

IER PREMIO: Educación Primaria 4º curso

Bazen behin neska txiki-txiki bat 5 urtekoa eta Lore izena zuena. Lagun guztiek burlak eta isekak egiten zizkioten. Egun batean burlaz eta isekaz nazkaturik bere ikusgarritasuna erakutsi zuen. Eta honela hasten da ipuina.

Herri txiki-txiki batean bizi zen gure Lore. Hara, hau da berak egun batean pentsatu zuena, eta honela esan zion amari:

- Ama! Nik galaxiatik bestaldera dagoena ikusi nahi dut.

- Ba... baina nola? –ama oso kezkatuik eta harriturik gelditu zen eta ez zekien zer erantzun.



Orduan Lorek, ez zuenez beste erantzunik jaso, pentsatu eta egin, maleta prestatu, bere bi arrano lagunei deitu eta besterik gabe alde egin zuen. Bidean arranoei ere janaria eman zien Lorek. Egun asko pasa ondoren galaxian zeuden. Arranoak utzi eta berak aire-rako egindako kaskoa ezarri zuen buruan.

Poz-pozik zegoen gertakizunaz, apiriletik azarora arte luzatu zen bidaia eta tarte horretan lagun bat topatu zuen Mino deitzen zena. Azkenean, iritsi ziren, dena beltz-beltza zen eta...

Kristal bat zegoen baina Lorek maleta hartu, eta hautsi egin zion. Hara! Hori ez zuen egin behar; bazeuden bi harri magiko airean; hau da, galaxiaz bestaldeko pasadizo. Kristala apurtzen bazen, itxi egiten zen eta ezingo ziren beste aldera pasa, orduan korrika-korrika pasa behar zuten harrien artetik baina...

Zoritxarrez Minok esku bat galdu zuen eta Loreri ez zitzaion ezer gertatu. Hara! Hantxe ikusi zuten galaxiaz bestaldera zer zegoen. Lorek kaskoa kendu zuen harriturik.

Marrubiak, txokolatea, mandarina, sagarra, zukua, pastela, izozkia... denetarik zegoen han, ez zen ezer falta eta handik aurrera ama, aita eta familia utzi egin behar izan zituen ez baitzegoen itzultzerik. Baina han egotea ere ez dago gaizki, lagun batekin. Eta janaria behar dutenean hartu besterik ez daukate.



XVII Certamen literario infantil-juvenil en euskera



Handik aurrera han bizi izan zen eta lurrera ez etortzeaz ez da damutu.

Eltxo batengatik lan guztia

Andrea Urriza Pascual

1. SARIA: Lehen Hezkuntza 4. maila

IER PREMIO: Educación Primaria 4º curso

Orain dela ez dakit zenbat denbora, mago gutxi geratzen zirenean, Xabier, Jon, Begoña eta Miren izeneko neska-mutil batzuk oso alai zeuden, baina ez magoak zeudelako, oportetako lehenengo eguna zelako baizik.

Denak arratsaldeko lauretan elkartzen ziren.

Egun horretan, beti bezala, Jon berandu iritsi zen. Bitartean bere lagunak herriko plazan erle teledirijitu batekin jolasean zeuden, baina Joni zoritxarra heldu zitzaion. Bat-batean eltxoa deskontrolatzen hasi zitzaion eta eltxo arrunt bat bezala nahi zuen lekura joan zen.

Ai ama! Jonen ahora joan zen zuzenean eta plaust! Barru-barrura sartu zitzaion.

- Ai ama! Zeeeer ggg zerbaittt sartu zait ahoan, ggggg lagundu! –oihukatu zuen Jonek.

- Lasai, lasaitu mesedez Jon. Konponbide bat aurkituko dugu. Jarraitu niri –esan zuen Xabierrek bizikleta hartuta.

Besteak, bizikletak hartu, eta mago batengana joan ziren zuzenean. Magoari txiki egiteko esan zioten, eltxo bat bezain txiki, baina Jon izan ezik. Magoak lezio hori ez zekiela eta bi ordu emango zituela ikasten esan zien. Bi ordu pasa eta gero magoak txiki-txiki bihurtu zituen neska-mutilak "PITITXU PITITXA TXIKI HAUEK TXIKI BIHUR DAITEZEN" esanez. Jonen ahotik sartu eta eltxoa bilatzen hasi ziren, bakoitza leku batetik nahiz eta non zegoen ez jakin. Buelta eta buelta, gora eta behera, aurkitu zuten azkenean. Begoña eltxo eder eta atsegin batez mozorrotuta bere aurrean jarri eta deika hasi zitzaion. Begoña korrika hasi eta eltxoak atzetik jarraitzen zion Jonen ahotik irten arte. Orduan bere jantzi normala jantzi zuen.

Magoak handi egin zituen berriz eta neska-mutilak etxera bueltatu ziren berriro.

Hortik aurrera, Jon, beti ordu erdi lehenago iristen da, eta ahoa itxi-itxirik du beti, bada ezpada ere.

Baserriko txerria

Maidier Urtzelai Anzizu

2. SARIA: Lehen Hezkuntza 4. maila

2º PREMIO: Educación Primaria 4º curso

Bazen behin baserri handi eta zahar bat, abere asko zituena, eta haietatik bazen bat, txerri oso-oso potoloa zena, eta horregatik ez zituen lagun asko. Egun osoa ematen zuen lokatzean.

Egun batean, hauxe galdetu zion bere buruari: "Nola izango da mendiko bizona?"

XVII. Literatur lehiaketa haur eta gazteentzat euskaraz



Txerria, berehala irten zen bere ikuilutik inork ikusi gabe eta handik mendira abiatu zen isilik. Hara iristean zerbait ikusi zuen sasi artetik mugitzen, eta pixka bat beldurtuta noski. Handik gutxira txerriaren tripak soinu ikaragarri bat egin zuen, orduan sasi artean zebilen hori atera egin zen, eta honela galdetu zion txerriari:

- Nor zara zu?

Eta txerria, noski, izutu egin zen, baina hala ere erantzun egin zion:

- Ni txerri arrunt bat na-naiz.

- Ni basurde bat naiz. Eta hau nire etxea da. Nahi baduzu erakutsiko dizut –esan zion basurdeak. Baina txerriak janaria nahi zuen, gose handia baitzeukan noski. Orduan basurdeari esan zion eta hostoak jan zituzten elkarrekin. Denbora luzez jolasten aritu ziren elkarrekin eta lagun egin ziren. Bat-batean hartz handi bat agertu zitzairen aurrean honela esanez:

- Hau nire basoa da, joan zaitezte hemendik!

Izuturik alde egin zuten baserrira eta bidean txerriak basurdeari galdetu zion:

- Nirekin bizi nahi duzu baserrian?

- Bai, zurekin bizi nahi dut –erantzun zion pozez zorutzen txerriari.

Baserrira iritsi ziren biak, ikuiluan lekutxo bat egin zuten basurdearentzat eta han oso pozik ze-goen. Handik egun askotara txerria eta basurdea oso potolo zeuden eta zast! hil egin zituzten.

Mikelen oporrak

Julen Martínez Azpiroz

2. SARIA: Lehen Hezkuntza 4. maila

2º PREMIO: Educación Primaria 4º curso

Bazen Mikel izeneko mutil bat. Beti eskolara ez joateko aitzakiak asmatzen zituen, baina amak:

- Mikel, ordua da.

Behin irakasleak "gaztelera" liburua ateratzeko esan zien. Ikasle guztiak liburua atera zuten batek izan ezik.

"Hoy vamos a comenzar con la sesión de castel..." –andereñoak.

- Z, z, z... –lokartu zen Mikel.

- Aizu, esnatu! –esan zion ikaskide batek.

- Ñam, ñam, ñam –marmar egin zuen Mikelek.

- Esnatzeko –berriz.

- Ixo! –protestatu zuen Mikelek.

- Ringg! –jo zuen tximinak.

- Luju, patiora! –oihukatu zuen Mikelek.

- A! Orain esnatu zara ezta?

Hurrengo egunean: gaztelera orduan...

- Z, z, z –Mikelek.

- Esnatu! –lagun batek.

- Ñam, ñam –Mikelek.

Horrelaxe joan zen denbora. Azkenean uda iritsi zen. Udarekin batera oporrak. Mutil guztiak hitz eta pitz zebiltzan:

- Ni Disneyworldera joango naiz.

- Ze Disneyworld eta ze Disneyputz! Nik Hiru Errege Mahaia igoko dut.

- A ze zortea!

- Ba ni Osasuna-Real Madrilen aurkako jokaldia ikustea joango naiz.



XVII Certamen literario infantil-juvenil en euskera

- Hau da kasualitatea! Neu ere joango naiz.
- Elkarrekin joango gara.
- Hi, Akilino, nora joango haiz?
- Ni, Errusiara.
- Aizak Mikel! Hi nora joango haiz? –galdetu zuen Akilinok.
- Ni, lehengusuenera –erantzun zuen Mikelek imo.
- Ja, ja, ja! Entzun duzue hori, mutilak?

Baina Mikelen lagunek ez zekiten non bizi ziren bere lehengusuak. New Yorken bizi ziren. 150 pisku azkenekoan.

Handik egun batzuetara Mikel lehengusuenera joan zen. New Yorkera iristerakoan, kale ilun batetik sartu zen. Mikelek prakak busti zituen izuaren izuz. Orduantxe “kri-kri” bezalako zaratatxo bat entzun zuen. Ez bat eta ez bi. Mikelek arrapaladan igaro zuen kale hura. Handik bost minututara lehengusuak bizi ziren eraikuntza ikusi zuen. Barruan zegoela, igogailuan txartel bat zintzilik: “Ez sartu, izorratuta dago”. Mikel, sututa, igotzen hasi zen. Ordu bat, bi, hiru... 7 orduz egon zen igo eta igo, izerdi patsetan. Goian zegoela diru-zorroa erori zitzaion:

- Arraioa! 150 pisu jaistera, eta okerrago igotzea! Hau da marka, hau!

Ordu batzuk geroago berriro zen goian, etxe barruan sekulako lasaitua hartu zuen. Egunak joan, egunak etorri, kurtsoa hastear zegoen.

Mikelek itzuli behar zuen.

Handik aurrera lehengusuenera joaten zenean poltsikoak ondo itxita igoko zituen.

Lapurreta bitxia

Asier Gordo Baztan

I. SARIA: Lehen Hezkuntza 5. maila

IER PREMIO: Educación Primaria 5º curso

Bazen behin Iruñan Marta izeneko neska bat, eta Josu izeneko mutil bat. Martak 11 urte zituen eta Josuk 12. Oso lagunak ziren eta kasu oso zailak ikertzen zituzten, ikertzaileak ziren eta. Marta oso altua eta argala zen, eta Josu, berriz, Marta baina baxuagoa.

Gaur, maiatzak 14, Marta Josuren etxera joan da, eskolara elkarrekin joateko. Josu oraindik gosaltzen ari da, eta Marta gonbidatu du gosaltzen. Martak lau gailera jan ditu eta Josuk beste horrenbeste. Geroxeago, Josuk eskolako motxila hartu eta gero, kalera irten dira, eta eskolarako bidea hartu ere bai. Eskolako saioetaz hitz egiten ari ziren bitartean, Martak esan dio Josuri gehien gustatzen zaion gaia matematika dela, ondoren Josuk esan dio berari ingurunea dela gehien gustatzen zaiona. Bidean Jonerekin topatu dira, eta eskolara iritsi behar zirenean, Lorearekin.

Patioan jolasten gelditu dira eta txirrinak jo duenean laurak ikasgelan sartu dira. Patio orduan futbol partida bat jokatu dute, Marta eta Josuren taldekoek 8-2 irabazi diete Lorea eta Joneren taldekoei.

Geroxeago txirrinak jo eta berriz sartu dira ikasgela barrura. Orain matematika ordua zen eta Josu irakasleak konpasa eta kalkulagailua ateratzeko esan die.

- Aizu, Joxe, konpasa eta kalkulagailua desagertu zaizkit –esan du Iñakik.
- Aizu, Joxe, konpasa eta kalkulagailua desagertu zaizkit –esan du Loreak.
- Aizu, ...
- Aizu, ...
- Aizu, ...
- ...

XVII. Literatur lehiaketa haur eta gazteentzat euskaraz



Klaseko guztiei konpasa eta kalkulagailua desagertu zaizkienez, Joxek ikasgaia aldatu du, eta euskara izan dute. Euskarako klasea bukatu ondoren konpasak eta kalkulagailuak bilatzeari ekin diote ikasgela guztitik, Joxe barne. Baina... ez dute ezta konpas ezta kalkulagailu bakarra aurkitu. Joxek orduan, Alfredo zuzendaria deitu du; gertatu dena esan eta gero, txunditurik geratu da. Bi segundu beranduago polizia deitzen ari zen, nahiz eta Joxek hainbestetaraino ez zela hainbat aldiz errepikatu. Gertatutakoa kontatu eta berehalaxe hiru polizia etorriko zirela esan diote Alfredori. Alfredok orduan haurrei kanpora irteteko esan die, handien gauza zelako hori. Baina Marta eta Josu, orduan, kanpoan zegoen leiho batera igo, eta hiru poliziak etorri arte itxaron dute. Hiru poliziak iritsi orduko han baziren biak, belarriak eta begiak leihoan itsatsita. Hiru poliziak joan arte egon dira kuxkuxeatzen, eta joan bezain laster entzundakoa aztertu dute:

- Polizia batek esan du hori oso arraroa dela... –esan du Martak.
- Eta beste batek, hori oso lapur on batek bakarrik egin dezakeela –jarraitu du Josuk.
Biak orduan pentsakor jarri dira une batez:
- Marta, lehenengo alternatiba da, ea norbait arraroa ate nagusitik sartu den –esan du Josuk.
- Orduan, goazen Kontxi atezainari galdetzera –jarraitu du Martak.
Segituan Kontxiren aurre-aurrean zeuden:
- Kontxi, galderatxo bat mesedez. Jostaldi orduan norbait arraroa sartzen ikusi al duzu? –galdetu dio Martak.

- Ez, polita. Ez dut inor arraro hemendik sartzen ikusi –erantzun dio Kontxik.
Orduan, berriz pentsatzen jarri dira.
- Josu, bigarren alternatiba, ea norbait leihoetatik sartu den izango litzateke –esan du Martak.
- Baina, kalera ematen duten leihoetatik ala patiora ematen dutenetatik? –galdetu du Josuk.
- Ba, goazen errekreoan leiho ondoan egon direnei galdetzera? –galdetu du Martak.
- Bale –Josuk.

Eta hara badoaz:
- Aizu, Gorka, jostaldi garaian ikusi al duzu norbait gure ikasgelako leihora igotzen? –galdetu dio Josuk.
- Ez –erantzun Gorkak.

Orduan bi gazteak kaleko leihoetatik ea norbait sartu den ikertzera doaz.
- Baina, nola jakin dezakegu ea norbait sartu den gure ikasgelako leihotik? –galdetu du Josuk.
- Alfredok dituen bideo kameretatik begiratu –erantzun du Martak.

Eta beti bezala hara badoaz berriro ere biak.
- Aizu, Alfredo mesedez, utziko al diguzu bideo kameretatik begiraten? –galdetu die Martak.
- Baina, Marta, jakin al daiteke zertarako nahi duzu kameretatik begiratu? –galdetu die Alfredok.
- Ba, ez da ezer, gure gauzak –erantzun dio Josuk.
- Bale, baina ongi zaindu, e!!!! – Alfredok.
- Bai, bai –biak ahots batera.

Orduan biak elkarrekin errekreo orduan ea norbait sartu den begiratzea doaz.
- Ba nik ez dut inor ikusten. Eta zuk, Marta? –esan dio Josuk.
- Ba nik ere ez, ez dut inor ikusten –erantzun dio Martak.
- Marta, barkatu momentutxo bat, baina pixa egitera noa –esan dio Josuk.
- Bale –Martak.

Josu korrika komunera joan da eta pixa egiten ari zen bitartean beste klasekoak sartu dira:
- Bua, Jokin, nire ustez konpasak eta kalkulagailuak emateko ordua dela, polizia eta guzti deitu dute eta –beste klaseko batek.

- ...
Orduan Josuk elkarriketa osoa ezkutuan entzun, eta beste klasekoak joan direnean irten da ko-



XVII Certamen literario infantil-juvenil en euskera

munetik. Korrika Martarengana joan, eta entzundakoa kontatu dio.

- Eta zer egingo dugu? –galdetu dio Martak.
- Ba Alfredo zuzendariari esan, ezta? –esan zuen Josuk.
- Bale –erantzun dio Martak.

Azkenean, Josuk entzundakoa Alfredo zuzendariari esan diote, eta Alfredok beste klasekoei galdetu die:

- Nortzuk kendu dizkiete konpasak eta kalkulagailuak beste klasekoei?

Eta inork ez duenez ezer esan, Alfredok lapurra edo lapurrak atera arte eta konpasak eta kalkulagailuak eman arte klaseko guztiak errekreoetan berarekin geldiko zirela esan die.

Konpasak eta kalkulagailuak hartu zituztenek, txantxa bat egin nahian, oso ikaratuta eta damututa daudenez dena kontatzea erabaki dute.

Eskolako zuzendari taldeak eskarmentu hau ematea erabaki du:

- Ikasurtea bukatu arte, eta jostaldi guztietan, ondoko gelako ikasle bakoitzaren material guztia zaintzea izango da zuen zigorra –esan die Alfredok.

Aritz oihaneko erregea

Lander Telletxea Garaioa

I. SARIA: Lehen Hezkuntza 5. maila

IER PREMIO: Educación Primaria 5º curso

Behin oihanean errege bat zegoen Aritz izenekoa. Aritz jaiotzez erregea zen, eta egin behar zuena bazekien, bere aitak erakutsi ziolako. Aritzek ez zuen anai-arrebarik ezta gurasorik, bakarnik lagunak. Oso ondo bizi zen etxe handi batean. Etxea mendi eta zuhaitzen artean zegoen ezkutatuta. Etxearen ondoan ibai handi bat zegoen, ibai hori Aritzena zen.

Egun batean oihuak entzun zituen.

Lehoiak ziren eta haserretuta zeuden. Salto ikaragarria emanez etxean sartu zen. Lehoi batek esan zion haserre bizian:

- Oihaneko erregeak betidanik lehoiak izan dira. Eta orain ez da aldatuko. Utzi erregea izaten edo zure kontra joango gara.
- Ez dizut utziko erregea izaten.

Lehoiak esan zion:

- Kontuz ibili, hereje!

Horrela joan zen beste lehoiekin batera.

Hurrengo goizean lehoiek plan bat pentsatu zuten. Lehoi zaharrenak esan zuen:

- Nik badakit zer egin: gauean etxea inguratu, eta denak batera sartuko gara.

Izugarrizko plana esan zuten lehoiek. Plana praktikatzan hasi ziren. Lehoi buruzagiak dena irabazita zutela pentsatzen zuen.

Aritzek bazekien lehoiak bere kontra joango zirela baina ez zekien nola. Aritzen lagunek tranpa batzuk jarri zituzten. Aritzek satorrei deitu eta zer nahi zuen egitea esan zien. Satorrek baietz esan zuten, eta tranpak egiten hasi ziren. Satorrek zuloak egin zituzten ibaia desbideratzeko etxearen inguruan. Orain etxea urez inguratuta zegoen.

Bukatzeko kokodriloei deitu zien. Kokodrilok etxe inguruan bizi ziren eta egun osoan uretan zeuden Aritz babesteko. Orain lehoiak ez ziren etxera hurbiltzen.

AUUUUU! Gaua zen eta ilargi betea zegoen. Lehoiak Aritzen etxera hurbildu nahian abiatu ziren.

Bat-batean etxea ibai batek inguratzen zuela konturatu, eta ibaia kokodriloz beteta zegoela ohartu ziren. Lehoiak kokodri loen kontra borrokan hasi ziren. Kokodrilo eta lehoi batzuk hilda zeude-



nean Aritzek esan zuen:

- Geldi! Ni naiz erregea! Ez borrokatu erregea izateagatik. Ez zara inoiz errege izango.

Aritzek koroa apurtu eta esan zuen:

- Oihanean ez da egongo erregerik!!!!

Lehoiek gaizki egin zuten... baina nork esan oihaneko erregeari mutil batek irabazi behar zionik?

Kontatu dizuedana ondoren, oihan horretan ez dago erregerik. Denak berdinak dira. Denek ber-

din agintzen dute.

OIHANA da danon erregin bakarra.

Iker eta etorkizuna

Asier Garmendia Berango

2. SARIA: Lehen Hezkuntza 5. maila

2° PREMIO: Educación Primaria 5° curso

Iker mutiko arrunt bat zen. Ikerrek 9 urte zituen, eta Bergamin kalean bizi zen bere ama, aita eta bere txakur Lañuarekin.

Iker goizero bezala ikastolara joaten zen oso pozik.

Klasean sartu bezain pronto, andereño Mari Carmen ingurune ematen hasi zen. Ikerri ingurune asko gustatzen zitzaion. Gero, frantsesa eta gero gorputz heziketa klaseak izan zituen.

Patiora iritsi zenean, futboleak jokatzeko hasi ziren, eta Ikerren taldeak bi huts irabazi zuen. Patioa eta gero, matematika saioa zuten eta On Isidro zuzendariak klasea ematen zuen.

On Isidro zuzendaria gizon biboteduna eta altua zen, eta oso majoa zenez, ikasle guztiekin ongi moldatzen zen.

Matematika saioa bukatu ondoren etxera joan zen bazkaltzera. Bazkaldu ondoren, ikastolara joan zen ingelesa eta bertsolaritza ikastera.



Azkenean, asteburua iritsi zen. Eta Iker aspertuta zegoen bizitza ari zen garaian. Orduan jo ta ke lanean hasi zen denboraren makinaren planoak egiten. Bukatu zuenean, bere buruari esan zion:

- Lortu dut! Denboraren makina baten planoak lortu ditut.

Makina bukatu zuenean, probatzeko historiaurrera joan zen. Hara iritsi zenean, liluratuta geratu zen, ez zegoen eraikuntzarik, ezta errepiderik ere. Ikerrek aurrera segitu zuen zerbait ikusteko asmoz, eta ikusi zuena animalia handi eta arraro bat zen.

Aurrera segitu zuen eta kabernikolak eraso egin zion, eta orduan, denboraren makinara joan zen, eta etorkizunerako programatu zuen.

Etorkizunera iritsi zenean, pertsona batek Iker ikusi zuen eta esan zuen:

- Hori da, hori da!

Eta beste batek esan zuen:

- Nor?

Lehenak erantzun zion:

- Denboraren makina asmatu zuen haurra.



XVII Certamen literario infantil-juvenil en euskera

Orduan jende asko joan zen berarengana autografo bat eskatzera. Eta Nobel Sarietara eraman zuten, espazioko Nobel Sarietara. "Zientzietako Nobel Saria" eman zioten.



Eta errege bat bezala zaintzen zuten denboraren makina asma-tzeagatik. Eta lker oso pozik zegoen. Baina bere familia faltatzen zenez triste zegoen, eta orduan denboraren makinara joan eta bere denborara itzuli zen.

Ikerrek gauza bat jakin zuen: menderik hoberena da zu zeu bizitzen zarena.

Kikak futbolaria izan nahi du

Erika Morales Esteban

2. SARIA: Lehen Hezkuntza 5. maila

2º PREMIO: Educación Primaria 5º curso

Bazen behin herri batean Kika izeneko neska bat. 10 urte zituen, futbola asko gustatzen zitzaion. Baina herri hartan neskek ezin zuten futbola egin. Kikari ez zitzaion ongi iruditzen. Kikari mutilek inbidia ematen zioten.

Halako batean Kikak ideia bat izan zuen: "Ni mutilez mozorrotuko naiz baina gurasoei ez diet ezer esango". Kikak bere itsulapikotik dirua hartu, eta futbolera apuntatu zen. Hurrengo egunean Kika inork ikusi gabe mutilez mozorrotu eta probak egitera joan zen. Entrenadoreak galdetu zion Kikari:

- Nola deitzen zara?
- Ni, ki ki ki!!!
- Kikel o ez Mikel izango da.
- Bai, Mikel naiz.
- Ongi etorriak mutilak. Hau Mikel da, berria. Orain probak egingo dituzu.
- Bai, hasiko gara.

Probak bukatu zituen. Kika hartu zuten. Biharamunean partidua zuten. Ekipo horrek beti galtzen zuen. Hurrengo egunean Kikaren aitak esan zion:

- Kika, gaur partidua dago. Etorriko zara ikustera?
- Aita, ezin naiz joan. Laurarekin geratu naiz.
- Beno, berdin da, gero arte.
- Agur eta ondo pasa.

Kika etxetik korrika joan zen, mutilez jantzi eta partidura abiatu zen. Aitak esan zion Kikaren amari:

- Begira, mutiko hori berria da. Nola deitzen den galdetzera joango naiz.
- Kaixo, mutiko, nola deitzen zara?
- Ni, Mi Mi Mi Mikel.
- Berria izango zara! Ia, zurekin irabaziko dute!
- Orain joan behar dut. Partidua hasiko da.

Pilota daramanak, lkerrek, Juleni pasatzen dio, Julenek Mikeli, Mikelek... porteriara tiro egin eta GO-LA!!! Mikeli peluka erori zaio. Eta jendea garrasika hasi da.

- Neska bat da! Neskek ezin dute jolastu!!! Baina ona da. Berari utz iezaiozue jolasten! Nola deitzen zara?
- Kika deitzen naiz.

XVII. Literatur lehiaketa haur eta gazteentzat euskaraz

Bere aita oso haserre zegoen. Kika hartu eskuekin eta logelan kastigatua utzi zuen. Hurrengo egunean entrenatzailea Kikaren etxera joan zen, atea ukitu zuen –pon pon!

- Baina nor da?
- Kikaren entrenatzailea.
- Sartu, sartu.
- Kika non dago?
- Bere logelan.
- Kaixo, Kika. Gauza bat kontatuko dizut. Nik zuk bezala egin nuen.
- Tratu bat egingo dugu?

Ipuina bukatzeko esango dizuet Kikari esker orain badaudela neskak futbola egiten. Orain neskekin jolastuko du. Kika hor apuntatu zen. Orain ez da mozorrotu behar.

Ainararen bakardadea

Amaia Andueza Lizarraga

I. SARIA: Lehen Hezkuntza 6. maila

IER PREMIO: Educación Primaria 6º curso

Egunero bezala oso urduri altxatu zen Ainara izeneko 12 urteko neska argal bat. Hiri batean bizi zen. Oso mehea zenez espageti deitzen zioten klasekoek, neska batek izan ezik. Bere lagun bakarra, eta Irati zuen izena.

Ikasketetan ez zen oso neska azkarra, batez ere matematikan, gainera oso maisu maltzurra zeukan. Matematika ordua marrazkiak egiten pasatzen zuen. Besteak aurrerantz zihoazen eta bera hor gelditzen zen blokeaturik. Egunak pasatzen ziren eta beti bezala aurrerapenik ez. Ainarak, etxean asperturik zegoenez, Iratiri deitzea erabaki zuen:

- Bai? –erantzun zuen Iratik.
- Ainara naiz, nahi duzu kalera atera?
- Bale, bostak eta erdietan, ados?
- Agur.
- Gero arte.

Ainara prestatzen hasi zen eta bat-batean: ring, ring...

- Bai esan?

Irati zen negarrez.

- Nire gurasoei entzun diet beste leku batera noala bizitzera!

- Zer? Eta zer egingo dut nik orain.

Ainara bere logelan sartu eta ez zen hurrengo eguneraino atera.

Hurrengo egunean ikastolan Iratik esan zion bere urtebetetzea pasa eta 7 egunetara joango zela -bere urtebetetzera 20 egun falta ziren- Iratiren aitari lana eskaini ziotelako. Iratik ez zekien zer oparitu Ainarari, eta pentsatzen jarri ostean eguneroko bat oparitzea bururatu zitzaion.

Ainararen urtebetetzea iritsi zenean opari mordoa jaso zituen: arropa, zapatilak...

Egun hartan ospatu zuen bere urtebetetzea bere lehengusu guztiekin, Iratirekin ere bai. Ainararengana hurbilduz opari bat eman zion. Ainarari asko gustatu zitzaion.

Iritsi zen eguna, Irati bazihoan, besarkada handi bat eman, eta kotxean sartu zen. Iratik, Ainarari jo-





XVII Certamen literario infantil-juvenil en euskera

an baino lehen esan zion bera joaten zenean egunerokoan idazteko. Ainarak Iratik esandakoa bete egin zuen.

"Martxoak 4.

Joan da Irati eta ez dakit zer egingo dudan bera gabe. Gaur nire egunik txarrena izan da, baina broma gutxi egin dizkidate. Ama oso kezkatuta dago eta irakaslearekin hitz egitera joango da. EZ DAKIT ZER EGINGO DUDAN!"

Nekatuta zegoen eta ohean sartu zen. Hurrengo eguna oraindik txarragoa izan zen soinketa zutelako, eta oso baldarra zenez ez zitzaion oso ondo atera. Denek barre egin diote beti bezala.

"Martxoak 5.

Gaurko eguna ez dut inoiz bizi hain txarra, hain baldar egon naiz ez dudala gogorik ikastola gehiago ikusteko. Soinketa geneukan eta txiribueltak ez zaizkit gustatzen. EZ DAKIT GEHIAGO IRAUNGO DUDAN!"

- Ring, ring...

- Nor da? –erantzun zuen Ainararen amak.

- Izeba naiz, bihar bisita egitera noa, ados?

- Ongi da, eta zer moduz...

Ainara ohe gainean zegoen pentsakor eta bere izeba sartu zen:

- Ondo zaude; eta ez esan baietz!

- Baa... begiratu egunerokoan, hor jartzen du dena –erantzun zuen.

Bere izebak egunerokoa hartu, eta irakurtzen hasi zen. Ainara ohartu gabe idatzitako orriak kendu zituen eta bere bolsora sartu zituen.

4 hilabete pasa ziren eta Ainara egunkarian ateratzen zen, eta oso idazle ona zela esan zioten. Neska tuntun haiek ea beraien laguna izan nahi zuen galdetu zioten eta berak baietz. Handik aurrera pozik ibili zen bere izebari esker, baina Irati oraindik buruan dauka.



Familia zaratatsua

Ander Torres de Pablo

I. SARIA: Lehen Hezkuntza 6. maila

IER PREMIO: Educación Primaria 6º curso

Azkenean, bidaia bat egin behar dugu familia osoak. Bazen garaia! Nire familia oso handia da; baina, denok elkarrekin bidaiatzen dugu, beste forma batez ezin dugulako bidaiatu. Onena da ez dakigula nora joango garen. Baina ez du inporta. Inportanteena joaten garen tokian neska eta mutil asko egotea da.

Niri bidaian nire lehengusu-lehengusinekin eta anai-arrebekin jarri naute, baina txikienekin ez; guk badaukagu jadanik metxa, eta horrek handiago garelako adierazten du. Gu lehergailuak gara baina ez Irakeko edo Pakistaneko lehergailuak, ez, fes-



XVII. Literatur lehiaketa haur eta gazteentzat euskaraz

tetakoak baizik, hau da, petardoak.

Orain nik, petardoak, nire familiako jendea deskribatuko dizuet: txiki guztiak pilatuta bidaiatzen dute eta Ponpeta dute izena. Horiek harri txiki-txikiz osatuta daude eta haien jantziak kolorezkoak dira. Ume txikiei ponpeta horiek gehien gustatzen zaizkien petardoak dira, eztanda asko egiten ez dutelako, eta bakarrik lurraren kontra bota behar dira.

Gero nire adinekoak doaz. Gu mota askotakoak izan gaitzeko: handiak, txikiak, lodiak... Gure jantziak koloretakoak dira eta bolboraz eta metxa txiki batez osatuta gaude, gure eztanda pixka bat zaratatsuagoa da ponpetena baino.



Kontu handiz erabili behar gaituzue min ez hartzeko. Gu mutil gazteagoek erabiltzen gaituzte.

Denak eztabaidatzen ari dira ea txupinazoa nor izango den. Batek berak izan behar duela esaten du handiena eta indartsuena delako. Eta horrela, guztiei bera txupinazoa izateko arrazoi bat ematen die.

Azkenean nire gurasoek txupinazoa egingo dute. Horrek jaiei hasiera ematen die eta bolboraz, metxaz eta karkasaz osaturik dago.

Osaba-izebek eta lehengusu handienek su artifizialak eta traka finala egingo dute. Su artifizialak gauean botatzen dira koloretakoak direlako eta ongi ikusteko. Traka finala, festetako zaratatsuena da, lehergailu guztiak elkartuta daude oso ilara luzea eginez. Horrek festek amaitu behar dutela adierazten du.

Badauzkat hortik familiako batzuk oso arraroak direnak, zeren zezen baten forma dute eta mota guztietako lehergailuak botatzen dituzte. "Zezen-suzko" dute izena.

Azkenean, kamioia gelditu da. Laster ikusiko dugu non gauden. Kamioitik atera gaituztenean, ez dakigu non gauden.

Baina neska-mutilak gure inguruan korrika eta begira daudela ohartu gara: Barañaingo festetan gaude, eta oso pozik gainera.





XVII Certamen literario infantil-juvenil en euskera

Liburu magikoa

Nerea Rodríguez Hervás

I. SARIA: Lehen Hezkuntza 6. maila

IER PREMIO: Educación Primaria 6º curso

Atzo arratsaldean Sarai izeneko neska bat bere gauzak egin eta gero irakurtzen jarri zen: "Probak" izeneko liburua.

Bat-batean liburuan murgildu zen eta atso zahar batek txartel bat zeraman eskuan eta "1. proba" jartzen zuen. Jarraian, 2 korrikalari atera ziren eta Sarairen arropak lasterketako arropa bihurtu ziren. Jarraian tiro bat entzun zen eta korrika hasi ziren. Saraik irabazi zuen eta orduan atsoa agertu eta esan zuen:

- Proba gairidituta.

Eta beste kartel bat atera zuen. Han "2. proba" jartzen zuen. Orduantxe arropa horiek desagertu eta hip hop-eko arropak eta musika agertu ziren. Gainera dantza bat asmatu behar zuen eta gutxienez 30 minutu irau behar zuen. Saraik ordu batekoa egin zuen eta orduan atsoak beste kartel bat atera zuen eta hor "3. proba" jartzen zuen. Hortxe gelditu zen. Musika, eta piano bat agertu zen. Melodia bat jo behar zuen. 2 orritakoa gutxienez. Sarairi asko kosta zitzaion egitea, baina 2 orri eta erdi bete zituen eta "4. proba"ko beste kartel batekin atera zen atso hori eta aulki batean eserita aurkitu zen orri bat mahaian zuela. Kontrol bat zen. Hasi, eta konturatu zen duela hilabete pare bat egindako matematikako kontrola zela. Azkar egin zuen eta oso erraza zela iruditu zitzaion. 10 bat atera zuen eta beste kartel bat aurkitu zuen "5. proba" jartzen zuena. Etxe bat zen. Etxe bat zen, eta txotxongilo lehiaketa zela ikusi zuen orduan. Jarraian txotxongiloa egiteko behar zituen gauzak agertu ziren eta txotxongilo eder bat egin zuen orduantxe. Asko kosta zitzaion egitea baina 2. postuan gelditu zen. Atera, eta "6. proba" agertu zen. Orkestra batean agertu zen Sarai, bere pianoarekin, eta denek batera sinfonia bat jo behar zuten. Hoberen jotzen zuena Sarai zen eta atsoa begira gelditu zen denbora guztian, eta gero "7. proba"ra pasa behar zuela esan zion. Han igerileku bat agertu zen, baina 3 igerilari ere. Sarairen arropak bainujantzi bihurtu ziren eta 100 m. pinpilinpauza egin behar zituen. Igo lekuan ailegatu zen, eta baina "8. proba"ra pasatu ere. 8. proban ordenagailu bat atera zen eta hantxe programa batean gauzak idatzi eta argazkiak bilatu behar zituzten interneten eta baina ere idazlan bat egin ordenagailuz eta ongi presentatu. Bukatu zuenean pantailan "9. proba" agertu zen. Proba horretan mozorro bat egin behar zuen ere. Kalderero mozorroa egin zuen, eta polka-pika dantza beste era batera asmatu ere. Oso ongi atera zitzaion eta orduan atsoak esan zion "10. proba"ra pasa zela. Hantxe bidegurutze baten erdian agertu zen eta probak zioen berak asmatu behar zuela nola ailegatu etxera bakarrik. 5 ordu edo gehiago egon zen Sarai etxerako bidea aurkitzen baina azkenean bere ohe gainean eta bere arroparekin aurkitu zen, lasai bere etxean. Azkar-azkar joan zen sukaldera ea bere ama zegoen eta den-dena kontatu zion baina bere amak ez zion sinestu, esaten baitzuen hori amestu egin zuela eta orain kontatu ke te kontatu (kontu kontari) ari zela. Horrela amaitzen da, Saraik beste liburu bat irakurri arte.



Matematikako lehiaketa

Paula Urzainki Rekari

2. SARIA: Lehen Hezkuntza 6. maila

2º PREMIO: Educación Primaria 6º curso

Bazen behin Miren izeneko neska bat. Ile horia zuen, eta oso altua eta argala zen. Bere lagun minena Irantzu zen. Neska batek biak asko gorrotatzen zituen. Olaia zuen izena, eta eskolako erregina zela iruditzen zitzaion.

Behin Mariak, irakasleak, denei esan zion:

- Ostiralean matematikako lehiaketa dago. Parte hartu nahi duenak hemen bere izena jar dezala. Mirenek eman zuen izena eta Olaiak hori ikustean, berak ere, bere izena jarri zuen.

Mirenek asko ikasi zuen; Olaiak, berriz, ez horrenbeste. Ostirala iritsi zenean Mirenek Olaiari esan zion:

- Zorte on Olaia, espero dut lehenengo fasea gaitzitea.

- Ba nik bai, gaitziteko dut, baina zuk ez, ja, ja, ja...—erantzun zion Olaiak.

Lehiaketaren I. fasea Mirenek gaitzitu zuen eta Olaiak ere baina gutxiengatik. Bigarren fasea ere Mirenek eta Olaiak gaitzitu zuten. Ondoren 10 minututako atsedenaldia egin zuten. Finalerako Miren eta Olaia geratu ziren. Mirenek 78 puntu zeramatzan eta Olaiak, berriz, 70. Azken galderak 10 puntu balio zituen. Mirenek lehenengo sakatu zuen botoia, asmatu eta lehiaketa irabazi zuen. 100 euroko saria eman zioten. Olaiak inbidiaz denei esan zion eskolan:

- Ez izan inor Mirenen laguna tranpati hutsa baita, txulika (harroputz) bat...

Miren, egun batean nazkatutik Olaiarengana joan zen, eta honela esan zion:

- Zergatik egiten didazu hau? Nik bakarrik lehiaketa irabazi nuen.

- Irabazi zenidalako —erantzun zion— eta niri ez dit inork irabazten. Ulertzen duzu! Inork!

Mirenen lagunak besteei kontatu zieten Miren neska jatorra zela eta Olaia zela tranpak egiten zituena eta gainera inbidia ziola Mireni. Olaiari sinestu ziotenek Olaiarengana jo zuten eta denek batera esan zioten:

- Zergatik esan zenigun gezurra? Gezurti halakoa! Tranpati bat zara!

Denak Mirenen alde jarri ziren. Mireni Olaiaren egoera ez zitzaion gustatzen.

Handik gutxira, honela esan zion Mirenek Olaiari:

- Olaia, egun hauetan lezioren bat ikasi ote duzu?

- Bai, lagunak ez baztertzen, baztertua izatea gustatzen ez zaidalako —erantzun zuen Olaiak.

- Nahi baduzu —esan zuen Mirenek— lagunak izango gara.

- Bale, lagunak izango gara.

Hortik aurrera Miren, Irantzu eta Olaia ez ziren gehiago haserretu, eta betirako lagunak izan ziren.

Aintzira baten ertzean

Miren Josune González Etxenagusia

2. SARIA: Lehen Hezkuntza 6. maila

2º PREMIO: Educación Primaria 6º curso

Aintzira baten ertzean nengoen eserita. Olatuek bustitzen zuten nire besoa... Ez zen haizerik sumatzen, baina bai hortzak izozteko barne hotz bat. Ni ez nintzen beldur zerbait gertatuko zela jakin arren. Bat-batean, haize bero bat sumatu nuen, baina nire barnean haize hotz bihurtu zen. Hotzikarek beterik, urduritasunak nire gorpuaren jabetasuna hartu zuen, eta basorantz abiatu nintzen korrika nire ile horia eta begi berdeak basoan galdurik nituela. Orduan, harri batekin jo eta orkatila bihurtu nuen. Han gelditu nintzen, etzanda, leku guztietara begira eta...

Hori bakarrik gogoratzen nuen. Baina, orain, bai. Dena gogoratzen dut. Hasieratik bukaeraraino.

Eta aintzirara begiratu nuenean, gaztelu bat ikusi nuen. Hasieran, ez nuen sinesten, baina begiak hainbat aldiz garbitu eta gero, egia zela jakin nuen. Bat-batean zenbait soka ikusezin lotu ziren nire gorputzean, eta gaztelurantz joatera behartu ninduten.

Atera iritsi nintzenean, sokek askatu egin ninduten. Atzera joan nahian biratu egin nintzenean, gaztelua uretan murgiltzen ari zela konturatu nintzen, eta barrura sartzea beharturik ikusi nintzen. Lehenik, ez nuen ezer ikusi, baina gora begiratu nuenean, hainbat neska eta mutil ikusi nituen. Gerrogo jakingo nuenez, ez ziren neska edo mutil arruntak, hegan egiten zuten.

Momentu horretan ez nekien, baina bertan hasiko zen nire bizitzako abenturarik handiena.

Goitik jaitsi zena ez zen haur bat, baizik eta irakasle bat edo.

Agurtu egin ninduen, eta gaztelu hura zer zen esan zidan. Hegan egiteko eskola bat zen. Ni liluratuturik geratu nintzen lehenengo txantxa bat zela pentsatu arren.

Ez nekien zergatik nengoen eskola horretan, nik ez nekielako hegan egiten. Baina berak esan zidan kualitate bereziak nituela hegan egiteko. Ez nekien zer egin, beldurtu edo poztu.

Azkeneko momentu horietan, "galdeketa egiten nion bitartean" berak nire egongela, parkea, gela nagusia, gela handia eta jangela erakutsi zizkidan. Denak oso handiak ziren.

Gela handira itzuli nintzenean, hegan egiten ikasteko ordua bukatu egin zen, eta ikasle guztiak niregana jaitsi ziren. Galderaz josi ninduten, adibidez: ea nola nuen izena edo ea zenbat urte nituen edo nola heldu zara hona. Nire gelan beste bost neska zeuden, nire adinekoak gutxi gora beheara. Berehala egin ginen lagunak. Hauek ziren beraien izenak: Gaide, Mix, Aile, Garde eta Elina.

Ez dizuet esan, baina nik Naida dut izena, eta hamasei urte ditut.

Ez zitzaidan asko kostatu hegan egiten ikastea, egia zen kualitate bereziak nituela. Gainera, Gaide-



XVII. Literatur lehiaketa haur eta gazteentzat euskaraz



ren, Mixereren, Aileren, Garderen eta Elinaren laguntzarekin ederki ikasi nuen. Laster bukatuko zen nire estantzia gaztelu horretan. Ailek gauean zerbait entzun zuela esan zigun. Ez zen irakasleei kontatzen ausartu, tuntuatzat hartuko zutelakoan. Gauean denek entzun genuen ulu hura, kanpotik zetorren. Klaseak bukatu eta gero, Gardek, zeukan magia pittin batekin, segurtasun arauari burla egin eta kanpora irten ginen. Ikusi genuena beldurgarria izan zen, zuhaitzak gaztelurantz hurbiltzen ari ziren. Otso gaixoez ulu egiten zuten zuhaitzek zapaltzen zituztelako. Orduan zuhaitz bat etorri zitzaigun gainera, baina Gardek eten egin zuen bere magia erabiliz. Gaztelura sartu behar ginenean zuhaitz bat hurbildu, eta biharamunean gaueko zortzietan gaztelua atakatu egingo zutela esan zigun. Barrura sartu ginenean, monitore eta irakasleei esan genien; hasieran ez ziguten sinestu, baina kanpokoak ikustean, izutu egin ziren. Korrika eta presaka, gela ilun batera eraman gintuzten. Gela gorria zen, eta banderatzoz josirik zegoen. Gelaren erdi-erdian kutxa bat zegoen. Irakasleek kutxa ireki egin zuten eta argi berde bat irten zen handik. Bat-batean nire gorputzean zerbait sartzen sumatu nuen. Magia zen! Berehala ikasi genuen magia erabiltzen. Osoa erraza zen! Gaueko zazpitan denak gazteluaren harresietan geunden. Urduri eta beldur. Batzuk prest ez zeuden aitzakiarekin barruan geratu ziren. Ozta-ozta genekien banatutako geziak erabiltzen, baina Ailek bazekien, eta oso ongi gainera, beraz, erakutsi egin zigun. Zortziak ziren, zuhaitzak mugitzen hasi ziren, eta neska batek, urduritasunez ezin gehiago, gezi bat jaurti zion lehenengo zuhaitzari. Dena isilik geratu zen. Gero borrokako oihu bat entzun zen, borroka hasia zen. Goizeko ordu batean hogeita hamar zuhaitz gelditzen ziren borrokan. Gure aldean hiru zauritu baino ez zeuden, eta ez oso larri. Denbora gutxi barru, bost zuhaitz bakarrik geratzen ziren, eta basorantz ihes egin zuten. Geroago bagenekien zergatik borrokatu nahi izan zuten gure kontra. Gaztelua egurrez egina zegoelako, hain zuzen, baso hartako zuhaitzez egina. Horregatik, zergatia jakin genuenean arrazoia zutela pentsatu genuen denek. Lkasitako magiaz, baso berri bat egin genuen eta gaztelua urrezko bihurtu genuen, zuhaitzak haserretu ez zitezen. Momentu horretatik deforestazioaren kontra egon naiz. Zauri bat nuen hankan, eta eseri egin nintzen. Orain, aintzira baten ertzean nago eserita. Olatuek nire besoa bustitzen dute. Ez da haizerik sumatzen, baina bai izotza urtzeko adina barne bero bat. Ni ez naiz beldur, gertatu behar zena gertatu zela badakidalako.

Kremlera, botoiak eta kateorrazak

Janire Perales Ullibarri

2. SARIA: Lehen Hezkuntza 6. maila

2° PREMIO: Educación Primaria 6° curso

Duela asko mendiko etxe zahar batean, kremlera bat, hamasei botoi eta hamasei kateorrazak bi-zi ziren. Pozik bi-zi ziren, eta egun batean esan zuten:



XVII Certamen literario infantil-juvenil en euskera

- Gu ez gara bereziko.

Egun batean familia bat etorri zen etxe horretara bizitzera. Gauzak uzteko tokia bilatzen ari zirelarik, aurkitu egin zituzten. Haurraren amak haurrari beroki bat egiteko erabiliko zituela pentsatu zuen. Berokia egiten ari zelarik konturatu zen botoiak josi ondoren denak lurtean zeudela. Orduan kremailearekin egin zuen froga; kremaileara josiz bukatu zuenean lurtean zegoela konturatu zen. Geroxeago kateorratza jartzen ari zelarik zitzada asko hartu zituen, eta bukatzean denak lurtean aurkitu zituen. Orduan kremaileara josten, josteko makinarekin, egin zuen froga eta ez zuen lortu jostea. Poltsikoak egiten ari zelarik senarra eta semea etorri ziren. Bazkaldu ondoren senarrarekin hitz egiten ari zelarik, senarrari ideia bat bururatu zitzaion:

- Zergatik ez dugu dena berokian jartzen?

- Ez dut uste hori ideia ona izango denik, baina froga dezakegu.

Arratsaldean, haria, josteko orratz berriak eta tela gehiago erosi zituzten. Biharamunean bazkaldu ondoren, poltsikoak eginak zeudela, berokia egiteko prest zeudelarik, konturatu ziren beste pertsona bat behar zutela.

- Sergio, Sergio, etor hadi –deitu zion bere aitak.

- Hemen nauk –erantzun zion berak.

Dena esplikatu ondoren lanean hasi ziren. Semeak kateorratzak jarri, amak kremaileara, eta aitak botoiak ipini zituen. Azkenik beroki polit bat lortu zuten. Negu osoan ez zuen hotzik pasa.

Geroztik oso pozik bizi izan ziren, bai mutikoa eta baita kremaileara, botoiak eta kateorratzak ere.

Bibolin magikoa

Asier Ieregi Aranburu

I.SARIA: Bigarren Hezkuntza 1. DBH

IER PREMIO: Educación Secundaria 1º ESO

Bazen herri txiki batean bibolin-jole bat, ez zeukan diru askorik eta kaleetan bibolina joz irabazten zuenaz konformatu beharra zuen. Bibolina aitonak emana zen, hil zenean bibolin-joleak hamabost urte eskas zituen, eta munduan bakarrik geratu zen. Bere aitona izan zen ezagutu zuen bere familiako kide bakarra, eta bera hil arte bizi izan zen bere ondoan, bere gurasoak txikia zenean hil baitziren.

Aitonak musikari buruz zekien guztia irakatsi zion, baita bibolina ondo jotzen ere, eta horri esker bibolin-joleak behar zuen dirua irabazten jakin izan zuen aitona hil ondoren. Egunero bibolina hartu, bere txokoan eseri eta han egoten zen orduak pasa, jo eta jo, pasatzen zen jendearen borondatez limosnatxo bat eskuratu arte.

A! Portzientro, idaztea ahaztu baino lehen, bibolin-jolearen izena Mixel zen, baina hau ez da datu inportantea berak bakarrik ezagutzen zuelako bere izena. Egun hura, egun normal bat bezala hasi zen, bibolin-joleak orduak zeramatzen bere txokoan ezer irabazi gabe. Inor pasatzen ez zela aprobetxatuz tabakoa erostera joan zen, bibolina txokoan utziz (oso ezohizkoa, normalean gainean eramaten baitzuen beti). Baina itzultzean bibolina desagertu egin zen! Bibolin-joleak, harriturik zegoela, itzal bat ikusi zuen kaleetatik zehar korrika, eta bibolin-joleak jarraitu



XVII. Literatur lehiaketa haur eta gazteentzat euskaraz

egin zuen, arrastoa galdu zuen arte. Han, lurrean botata, bere bibolina ikusi zuen; "Ganberro halakoak!" pentsatu zuen bibolina jasotzen zuen bitartean. Bibolina egoera onean zegoen, eskerrak! Beraz, bibolin-jolea, gertatu berri zenari buelta gehiago eman gabe txokora itzuli zen berriro, ez baitzen gizon gorroto zalea, eskerrak, eta ez zitzaion inporta jakitea nor zen bibolina lapurtu nahi ziona. Gainera ez zuen liskarretan sartzea gustuko ezta hitz egitea ere, nahiago zituen pentagramak eta musika, esaldiak eta hitzak baino. Gainera bere aitona txikitari beti esan ohi zion:

- Utzi hitzak politiko, mediku eta apezentzat. Baita gure herriko alkatearentzat!
Bixente Tripadexente!

Eta Mixelek kasu egiten zion noski. Bigarren aldiz eskertu zuen bibolina egoera onean egotea eta eroso jarri ondoren hasi zen, baina bibolinarekin jotzen ari zen "Bagare" bat-batean doinu guztiz ezberdin batean bihurtu zen. Kanta bitxi hura bizia zen, ederra, liluragarria, magikoa. Herri txiki horretako jendeak, laster, komentario atseginak egiten hasi ziren bibolin-jolearen musikari buruz, baita ere gure bibolin-jolea diru gehiago irabazten hasi zen, bere aurretik pasatzen zen jende guztiak ematen baitzion zerbaite. Ez zuen herri horretako jende askorik ezagutzen (ez baitzegoen jende askorik), baina haurrei, gazteei, zaharrei, guztiei gustatzen zitzairen bere musika. Beraz, doinu bitxi hori jotzen jarraitu zuen (hark ezagutu ez arren), astero jotzen zuen, egunero, ordu guztietan, beti. Hala nola, behin tipo indartsu, kirol zale, atletiko, altu bat, beltzarana, oso bibolin-jolearen ondotik pasatu zen, txanpon batzuk atera, eta bibolin-joleari eman zizkion:

- Zorionak, motel! Ez diat hain musika zoragarria inoiz entzungo eta! –eta hori esanda aldentu zen. Hilabeteak pasa ziren eta bibolin-jolea berdin zebilen bere doinu ezezagun hura jotzen eta goi-zero tabakoa erostera joaten. Beno, egun horiek ez ziren aspergarrienak izan, gutxienez gure Mixelentzat olinpiadak ospatu egin baitziren. Bai, herri txiki horretaraino edozein berri iristen zen, beraz bibolin-joleak telebista faltan tabernako telebista edo irratiarekin konformatu beharra zuen edo bestela, egun hartan egin zuen bezala, tabakoarekin batera egunkaria erosi. Egunkariaren azala irakurri zuen:

ARRATOIETA HERRIKO EGUNKARIA

PISU-JAURTIKETAKO TXAPELDUN BERRIA AURTENGO
JOKO OLINPIKOETAN: Gaizka Harrilegi lehen postuan geratu zen
atzoko pisu-jaurtiketa saioan... informazio gehiago | 3. orrialdean



XVII Certamen literario infantil-juvenil en euskera

Azalaren irudia arretaz begiratu zuen. Gaizka Hamilegi delakoa lehendik ere zuen ikusia, "indartsua, altua, beltzarana... noski! Duela hilabete batzuk ikusi nuen!" esan zuen bere barnerako, eta hala zen, gizon hura duela nahiko hilabete bere ondotik pasa egin zela, zoriendu zuen. "Ze nolako kointzidentzia!" esan zuen berriz ere bere golkorako. Gero bibolina hartuta txokora joan eta bere musika "magikoa" jotzen hasi zen. Intelektual piura zuen gizon bat pasa zen orduan, oso kontzentraturik zebilen zerbaitetan. Eta deus esan gabe kartera hartu, eskua, pentsatu gabe, bertan sartu eta, bilete mordo bat jaurti zion bibolin-joleari:

- E, aizu! -oihukatu zion bibolin-joleak urduri, ez baitzegoen ohituta horrelako dirutza jasotzera. Gainera edonork lapurtu zuela pentsatu zuen, hala ere tipoa despistatuegi zebilen ezer entzuteko. Konturatzean, bibolin-joleak dirua gorde zuen, urduri, baina eskerturik, gizon hura bere musika miresteko gai izan baitzen hodeitan ibili arren. Pasa ziren egunak eta asteak eta bibolin-jolea joan zen berriz, goizero bezala, egunkaria erostera (egun hartan ez zuen tabakorik erosi, erretzeari utzi nahi zion eta), eta beti egin ohi zuen moduan azala irakurri zuen:

ARRATOIETA HERRIKO EGUNKARIA

Kasiano Kasietxenike neurologoak medikuntzaren nobel saria irabazi zuen meningeen konponketa prozesuko esperimentuan izan zuen arrakastagatik... informazio gehiago 6 eta 7 orrialdeetan



Txundituta geratu zen bibolin-jolea argazkia ikustean:

- Ez da posible! Bilete mordoa eman zion gizon hura zen, oso despistaturik zebilena! Duela aste batzuk ikusi zuen. Momentu hartan konturatu zen bibolin-jolea bere aitonaren bibolinak musika berezi hura ateratzea eta bi haiek berarekin atseginak izan ondoren lortutakoa lortzea ez zirela ez kointzidentziak, ez baitzen batere tontoa gure bibolin-jolea! Orduan, pentsatzen hasi zen, musika hartan, bibolin hartan eta oroitzapen bat etorri zitzaion. "Bai! Hori zen! Aitonak txikia nintzean beti jotzen zuen kanta!" oroitu zen bat-batean, ahaztua zuen.

Handik aurrera pertsonaje bat izan zen herri txiki horretako jendearentzat, beti jotzen zuen edozein tokitan, edozein momentutan, herriko enparantzan, herriko festetan beti. Ez zen aberats bihurtu ezta famatua ere (herritik kanpo gutxienez ez) baina berak ez zuen hori gustuko, bizitzeko diru nahikoa zuen baita etxe dexente bat izateko herrian, horrekin alai bizi zen beti izan baitzen alai eta optimista gure bibolin-jolea.

Eta nor zen hasierako itzal hori? Galdetuko dute askok; ba, sentitu arren, zuek asmatu beharko duzuela uste dut.



Elektroville

Inaxio Perales Moreno

I. SARIA: Bigarren Hezkuntza I. DBH

IER PREMIO: Educación Secundaria 1º ESO

Kaixo, ni Ron naiz, Elektrovillen bizi naiz, eta zerbait kontatu behar dizuet. Hiri hau harresiz inguraturua dago eta... beno, dena azaltzea eta hasieratik hastea onena da.

Hemen guztiok eskubide gabekoak gara eta ezin gara ezertaz kexatu. Ezin gara hiritik atera harresiz inguratutik baikaude, inork ez daki zer dagoen horren atzean eta bijilantzia asko ez eskapatzeko, eta gobernatzaileak ez dira inoiz aldatzen.

Edonon bezala, hemen, matxinatzen den espioi talde bat dago. Eta ni horietako bat nintzen.

Espioi bezala, ezkutuko bizitza bat neraman eta beste espioiak ziren nire lagun bakarrak. Nire misioa zer gertatzen zen jakitea zen.

Dena nire misioa betetzen ari nintzenean gertatu zen:

- Kontuz Eon, hau arriskutsua da eta.

- Bai, arrazoa duzu, ia gobernadoreen etxean gaude –esan zuen kormika ari ginen bitartean.

Bat-batean, lorategi erraldoi bat ikusi genuen; arriskutsua zenik ez zirudien, baina hobeto behatzean, zuhaitzek xiringak botatzen zituztela, belarra puntzoiak zirela eta loreek gas pozoitsu eta itogarri bat botatzen zutela antzeman genuen.

Belarra ez zapalduz, eta xiringak eta gasak saihestuz aldare batzuen gainean salto egin genuen, lan nekagarria izan arren. Azkenik koliseo baten antzeko ateetara ailegatu ginen. Bertatik sartu ginen beste irtenbiderik ez baitzegoen. Bat-batean animu edo mehatxu batzuk entzun ziren, ez zen oso ondo bereizten, lorategiko gasak bota zituztelako, eta zerraldo lurrera erori nintzen.

Esnatu nintzenean kartzela elektroniko baten barruan geunden sartuta Eon eta biok. Kartzela hauek laser batzuk dituzte eta ateak bakarrik lektore eskaneatzailean hatz-aztarna eskaneatzen irekitzen dira.

- Ron, Ron, esnatu! Begira non sartu gintuzten atzo!

- Atzo?! –galdetu nuen– zenbat denbora daramat lo egiten?

- 20 ordu.

- Ai, ama! Zer? Nola? Zergatik?... Beno, orain horrek berdin dio, orain inportanteena hemendik ateratzea da!

- Bai, baina nola?

- Ez dakit.

- Ideia bat dut, makilatzeo hautsak eta plastikozko eranskor txikiak daramatzat hemen, inoiz ez da momentu txarra erabiltzeko!

- Aizu! Makilatzen pentsatzen al zaude?

- Ez, irteteko modu bat da! Hautsak eranskinetan bota ondoren lektore eskaneatzailean jarri eta azken hatz-aztarna islatuko da.

Hori egin ondoren bentilazio hoditik alde egin genuen. Lau hanketan arrastaka genbiltzala zirritu batetik elkarrizketa bat entzun genuen:

- Egun on jaun-andreok, hemen gaude astero bezala zerbait eztabaidatzeko. Has dadila eztabaida!

- Bai, zera, ni Frink naiz, oh Praxis gobernatzailea! Nire ustez hau bukatu behar da! Ezin dugu honenkin jarraitu, klonazioa ez da harresien atzekoa saihesteko modua eta sendagai bat asmatzen ari naiz!

- Nork eman dizu baimena formula bat egiteko? –esan zuen Praxisek– esan, nor izan da?

- Ba ez daukat baimenik baina... ez! Ez! Ez! Hori ez! Edozer hori izan ezik, A A A A A!

- Beno, norbait gehiago saiatu al da nire aurka matxinatzen?



XVII Certamen literario infantil-juvenil en euskera

Ez zen ezer entzun denboraldi labur batean eta Praxis berriz ere hitz egiten hasi zen:

- Orduan, hurrengo asterarte.

Hori entzun orduko hodiari ostiko bat eman, eta beheko gelara jaitsi ginen, eta pistolarekin apuntatzen zuenari azaltzea esan genion; istorioa hauxe zen:

3. guda mundiala produktu kimiko eta eraso bakteriologikoekin hasi zen, bizitza zuen guztia suntsitzeko asmoz. Azkenean, lurrazpian milaka urtez egon ziren mikrobio batzuk gas horien eraginez erreproduzitu ziren, eta lurrazaleko landareekin kontaktu egitean 20 metroko landare arriskutsuak sortu zituzten. Landare horiek oso arriskutsuak ziren, ez bakarrik beren arantza pozoitsuengatik, botatzen zuten gel toxiko batengatik baita ere. Hasieran zonalde jakin batzuetan erasotzen zuten, baina urteak igaro ahala mundu osotik zabaldu ziren.

Hori kontatu zigunean zera galdetu nion:

- Eta zergatik hemen gartzelaraten gaituzue klonazioa erabiltzen?

- Babesteko, gel toxiko horrek gas bat botatzen duenez atmosfera osotik zabaltzen delako eta gas hori mortala delako!

- Eta zergatik ez diozu kasurik egin lehen bere ideia azaldu duen gizonari?

- Aurreko froga berdintsu batean populazio erdia baino gehiago hil zelako... eta... beno, gehiegi dakizue eta hori ez da ona.

Hori esan orduko kriskitin egin zuen hatzez eta tiroz josi gintuzten edozer sumatu baino lehen.

Une batzuetan bizirik gabe sentitu nintzen, eta neure gorputzeko edozein zati mugitu ezinik. Baina bat-batean ume nintzela berriro sentitu nuen.

Prozesu hau etengabe gertatzen ari da Elektrovillen, baina mundu errealean zer dago bizitzaren ondoren? Lo bukaezina? Nork daki? Beste bizitzaren bat egonen da?

Surflariak

Odei Sagardoi Soria

2. SARIA: Bigarren Hezkuntza I. DBH

2º PREMIO: Educación Secundaria 1º ESO

Baziren behin bi lagun itsasoaren ondoan zegoen herri txiki batean bizi zirenak. Igor eta Asier haien izenak ziren, baina herri osoak bikiak bezala ezagutzen zituen, egun berean jaio zirelako eta beti elkarrekin ibiltzen zirelako.

Ikastolatik ateratakoan haien aitei laguntzen zieten: behiak zaintzen, esnea eraisten, oiloei janaria ematen, soroak lantzen, belarra lantzen edo moztzen.

Bukatutakoan haien txirrindulak hartu, eta itsasorantz ziztu bizian joaten ziren.

Ailegatutakoan surf-taulak atera, eta uretara joaten ziren surfa egitera; uretan zeuden bitartean, munduko zoriontsuenak sentitzen ziren.

Beraien herrian ez zegoen institutorik, horrexegatik lehen hezkuntza bukatu eta gero hirira joan behar ziren ikasketak bukatzera.

Bigarren hezkuntza hasi zirenean Igor eta Asier oso pozik zeuden, ostera poza kendu zitzairen hilibete pare bat pasatu zirenean.

Gelako ikaskideek tontoak bezala tratatzen zituzten, orduan Igor eta Asier oso triste jarri ziren, herriko giroa faltan sumatzen zutelako; behiak baita ere, baina garrantzitsuena itsasorik ez egotea zen.

Tutorea konturatu zen haien aurpegia triste baino tristeago zegoela, ez zutelako lagunik, eta be-
raiekin hitz egitera joatea pentsatu eta egin zuen:

- Egun on, Igor eta Asier. Zer moduz zaudete?

XVII. Literatur lehiaketa haur eta gazteentzat euskaraz



- Ba... beno, beti bezala.
 - Baina beti ikusten zaituztet biak bakarrik. Ez daukazue lagunik ala?
 - Ez, gu biok beti bakarrik egon gara.
 - Baina zergatik ba? Ez duzue jolastu nahi ala?
 - Ez, futbola ez zaigulako gustatzen, eta haiei behiak ezta ere, nola konponduko gara ondo?
 - Ea, Igor; mundu honetan ez da guztia behiak edo futbola, badaude gauza gehiago ere.
 - Bai, bai, badakigu. Baita surfa egiten dugu ere.
 - Ze, ba, surfa gustukoa duzue.
 - Bai, asko gustatzen zaigu.
 - Primeran!! Gaur bertan helbide elektronikoko batetik lehiaketa bat ailegatu zait. Surf lehiaketa!! Zuek institutua ordezkaturko zenukete?
 - Ez dakigu, gu ez gara oso onak eta gainera gehiengoak ez dira ados egongo guk ordezkatzearekin.
 - Beno, beno, hori ikusiko dugu!
- Tutorea bere ikaskideei esaten: ez dago dirunik kurtso amaierako festa ospatzeko, baina zuen artean badaude bi pertsona dirua lor dezaketenak, Igor eta Asier dira. Badakigu surf lehiaketa bat dagoela; Igorrek eta Asierrek surflari onak direla esan didatenez, aurkeztea pentsatu dut. Eztabaida anitz sortu ziren, batek baietz, besteek ezetz, baina azkenean onartu egin zuten. Lehiaketa Zarautzen egin behar zen, baina entrenatzeko oso zaila zutenez bi asteko baimena eman zieten bi surflariei.
- Bi aste horietan asko ikasi zuten surfaz, baina eguna iritsi zenean beldurra ematen zien galtzeak, festarako diru guztia galduko zutelako eta ikaskide guztiak festarik gabe geratuko zirelako. Hogei institutok parte hartzen zuten.
- Igorri lehenengoa ateratzea tokatu zitzaion, eta 207 puntu lortu zituen. Asier, berriz, azkena atera zen baina hari esker irabazi zuten, 300 puntu atera zituelako eta bien artean 507 puntu atera zituztenez irabazle geratu ziren. Ikaskideak txalotzen hasi ziren eta guztiak sariaren bila joan ziren. 3.000 euroko saria irabazi zuten eta beraiei esker instituto osoak munduko festarik hobereana ospatu zuen.
- Igor eta Asier poz-pozik zeuden, baina gehien inporta zitzaiena ez zen dirua edo festa, lagunak baizik, eta hori guztia tutoreari esker.

Lee samuraia

Adrian Iglesias Martin

2. SARIA: Bigarren Hezkuntza I. DBH

2º PREMIO: Educación Secundaria Iº ESO

Bazen behin Pekinen, Txinako hiriburuan, Lee Yung Way izeneko samurai bat. Samurai hori oso trebea zen ezpatarekin, eta enperadorearen borrokalari onena. Leek milaka borroketan parte hartu zuen eta denak irabazi zituen milaka hildako utzita.

Egun batean Hang To hiriko samurai batzuk gauean etorri, eta enperadorea bahitu zuten zaintzaileak hil eta gero. Hurrengo egunean, Lee enperadorearen jauregira joan zen hari bisita bat egi-tera. Sartu zenean zur eta lur gelditu zen zaintzaileak hilda zeudela konturatu zelako, eta bitan pentsatu gabe enperadorearengana joan zen ziztu bizian. Haren gelan sartu orduko, ohartxo bat ikusi zuen lurrean erorita eta hau irakurri zuen:

Ez dakigu nor zaren, baina zure enperadorea bahitu dugu.



XVII Certamen literario infantil-juvenil en euskera

Enperadorea bizirik ikusi nahi baduzue eta berreskuratu nahi baduzue, honako hau egin behar duzue: 250.000.000 yen eman behar diguzue 1361.eko uztailearen 7a baino lehen samuraien oihanean.

Hirietako kartazal bakoitzak itxura ezberdina zuen eta segidan Lee bere etxera joan zen hori iker-tzera. 30 minutu pasa ondoren, Leek kartazala nondik zetorren argitu zuen, Hango To hiriko kar-tazala zen. Hori argitu ondoren bere lagun minarengana joan zen, Yung Tei izenekoa. Yung, Lee bezala, samurai aparta zen, eta Leerekin batera borroka askotan parte hartu zuen. Leek Yung-i ze-kien guztia azaldu zion, eta bukatzean, zera esan zion:

- Hemengo 100 borrokalari hoberenak bilatu eta Hang Tora eraman behar dituzu. Bertan bo-rrokatu behar dugu enperadorearengatik, ni bertan egongo naiz.

- Ondo, lagun, esan didazuna beteko dut.

- Ah! Itxaron apur bat beste gauza bat esan behar dizut eta: samurai horiek 1361.eko uztailearen 7a baino lehen eraman behar dituzu, bestela enperadorea hilko dute.

Yungekin egon ondoren motxila egiten hasi zen, eta bukatzean Hang Torako bidea hartu zuen. Bi-daiaren erdian zegoela, herri ibiltari batekin topo egin zuen. Herri ibiltari horrek Lee preso hartu eta bere buruzagiarengana eraman zuen. Buruzagiak Lee hiltzea erabaki zuen; Leek hau ikusita be-re ezpata atera eta borrokarako orroa egin zuen:

- Yang tu ho!!!

Hori esan, eta geroxeago Leek herritar guztiak hil zituen, ezpatarekin trebetasuna zuela erakutsiz. Herritar guztiak hil ondoren horien odola edan zuen egarri handia zuelako eta bertan ura ez ze-goelako. Jarraian Hang Torako bidea hartu, eta martxan hasi zen. 5 egun geroago Han Tora iritsi zen. Bertan lana bilatu, eta alojatu zen. Bere lana bertako enperadorearen zaintzailea izatea zen. 2 hilabete pasa ondoren enperadorearen lagun ona egin zen, eta Pekinen gertatu zenaren berri eman zion, baita non zegoen bere enperadorea. Beste egun batean, Leek uso mezulari bat bida-li zion Yung-i. Mezuak zera zioen:

Kaixo, lagun:

Hang Torako bidea hartu behar duzue lehenbailehen, hiru hilabete falta dira epea bukatzeko. Gaine-ra bertako zaintzailea naiz eta gure enperadorea non dagoen esan didate. Ailegatu bezain pronto eto-rri nire etxera, eta ejertzittoa hemendik gertu utzi.

Agur bero bat.

Lee Yung Way.

20 egun pasa eta gero, Yung Tei, Hang Tora ailegatu zen samurai ejertzitoarekin. Yung, ejertzittoa Hang Toren kanpoaldean utzita, Leeren etxera abiatu zen herriko jendeari galdetzen. Ailegatzean Yungek atea jo zuen:

Tok-tok!

- Nor da?

- Yung naiz, ireki atea mesedez.

Atea ireki eta gero...

- Kaixo! Sartu, sartu, itxaroten ari nintzaizun.

- Nola zenekien etorri behar nintzela?

- Horrek ez du inporta. Beno, eseri, plana azaldu behar dizut eta. Bihar gauean enperadorea as-katzera joango gara, bihar gauean hemengo festak hasiko direlako su artifizialekin batera eta mo-mentu horretan mazmorretan egongo diren zaintzaile kopurua eskasa izango da.

- Eta zergatik ekarri dut ejertzittoa?

- Gauzak gaizki irteten badira laguntza beharko dugu.

XVII. Literatur lehiaketa haur eta gazteentzat euskaraz



- Zergatik aterako da gaizki?
 - Ez dut esan gaizki atera behar denik, bakarrik segurtasun handia dutela eta agian gaizki aterako dela. Hang Toko soldaduak etorriko balira ekarri duzun jendea beharko genuke borrokarako.
 - Ondo da, agur eta bihar arte.
 - Agur:
 - Hurrengo gauean:
 - Kaixo, Yung.
 - Kaixo, goazen gure enperadorea askatzera.
- Martxan jarri ziren eta mazmorretako sarreratik sartu ziren Leek kontraseña bazekien eta. Sartu orduko zaintzaile guztiak hil zituzten, baina batek bere bizitzako azken esfortzuan alarma jo zuen. Orduan, segidan milaka eta milaka soldadu etorri ziren borrokarako prest. Jarraian Yungek traste arraro bat atera eta bertako botoia zapaldu zuen, berak ekarritako jendeak laguntzeko. Borroka odoltsua pasa eta gero bakarrik 50 pertsona bizirik atera ziren bertatik: Lee, Yung, enperadorea... Pekinera bueltatu zirenean enperadoreak Lee eta Yung saritu zituen eta Hang Totik bizirik atera ziren 47 soldaduak ere.
- Azkenik, dena ohiko egoerara itzuli zen eta denak pozik bizi izan ziren harez geroztik.

Aangen kondaira

Jon Urbizu Mendivil

I. SARIA: Bigarren Hezkuntza 2. DBH

IER PREMIO: Educación Secundaria 2º ESO

Baziren behin bi anai-arreba Soka eta Katara izenekoak.

Lau eskualdetan banandutako mundu batean bizi ziren. Uraren eskualdekoak ziren, horregatik Katarak ura menpera dezake. Eskualde bakoitzeko zenbait pertsonak haien eskualdeari dagokion elementua menpera dezake.

Egun batean arrantzatzer atera ziren; Soka arrantzatzerko kainaberarekin saiatzan ari zen eta batean bere arreba, ura menperatzeko ahalmenarekin, arrain bat atera zuen, baina Sokak ez zion kasurik egiten, eta azkenean erori egin zitzaion. Horren ondorioz eztabaidatzen hasi ziren eta ur laster batzuetan sartu ziren konturatu gabe. Bizirik atera ziren, baina izotz bloke baten gainean geratu behar izan ziren. Minutuak pasata, izeberg bat ikusi zuten, oso izeberg bitxia, esfera formakoa eta distiratsua. Hurbildu egin ziren gutxinaka-gutxinaka eta mutiko bat izebergaren barruan zegoela ohartu ziren. Sokaren armekin izotza apurtzen hasi ziren, eta zulo bat egitea lortu zutenean, argi distiratsu eta zuri bat atera egin zen, eta ia itsu uzten ditu... Momentu hartan suaren eskualdeko (eskualde gaiztoa) nagusi batek, hurbil zebilelarik, argia ikusi zuen. Abatarra zela pentsatu zuen; abatarra lau elementuak menpera ditzakeen pertsona bakarra zen. Orduantxe argira abiatu zen, bere eginkizuna abatarra harrapatzea zen, arazo familiar batzuegatik bere herri bota zutelako, eta bueltatzeko abatarra harrapatu behar zuen... Bitartean Soka eta Katarak Aangekin (abatarra) laguntasuna egin zuten, eta bere bidaian lagunduko zutela esan zioten. Lehenbizi, Katara ura menperatzen irakasten hasi zitzaion. Egun asko entrenatzen zuten; Aangek oso azkar ikasten zuen, abatarra baitzen. Ura menperatzen ikasita, lurraren eskualdera joan ziren.

Bidaian zeuden bitartean, suaren eskualdeko zenbait itsasontzi ikusi zituzten. Gure protagonistei erasotzen hasi ziren!! Baina beraiek ez ziren atzean geratu, kontra-erasoa prestatzen hasi ziren, ura hanka azpian zutenez, abantaila zuten. Katara eta Aangen artean olatu handiak eta izotz blokeak eratzen hasi ziren. Haiekin bukatzerakoan beraien bidaia jarraitu zuten. Lurraren eskualdera ailegatzekoan, gizon jator bat ezagutu zuten; hotel baten jabea zen, eta gainera lurra menpera-



XVII Certamen literario infantil-juvenil en euskera

tzen zekien. Gizon horrengan aurkitu zuen Aangek lur-menperatze irakaslea. Katararekin bezala, entrenatzen hasi ziren; azkar ikasten zuen bai, baina lurra ez zen ura bezain erraza menperatze-ko, beren zailtasunak zituzten. Egun txar batean Zuko (suaren eskualdeko nagusi bat) agertu zen eta erasotzen hasi ziren, Aang lurra erabiltzen saiatu zen, baina gaizki atera zitzaion eta bere lagunengandik kaltegarria suertatu zen. Azkenean, esfortzu handiz irabazi egin zuten. Suaren eskualdera abiatu ziren Aangen irakasle berria agurtu ondoren. Suaren eskualdean Zukoren arreba ezagutu zuten; oso jatorra zen eta Azula zuen izena. Bere anaiarekin liskarrak izan zituen, eta oso haserre zegoen berarekin.

Azkenean Azulak zenbait klase eman zizkion Aangi, eta lau elementuak menperatzen zekienean Suaren gizonaren aurka borrokatu zen, bera bakarrik. Laguntza jasotzen bazuen borroka galdutzat emango zioten. Borroka bukatu egin zen eta munduaren salbatzailea izan zen. Katara eta Soka agurtu ondoren bere etxera bueltatu zen eta bere lagunetan pentsatzen aritu zen egun osoan.

Ipuina

Iñigo Saldias Eseverri

I. SARIA: Bigarren Hezkuntza 2. DBH

IER PREMIO: Educación Secundaria 2º ESO

Bazen behin Antxi herria, Asier, Josu, Iraitz, Eneko, Xabi eta ni plaza batean geundela. Asierri margotzea gustatzen zitzaion eta beste guztiak, nik izan ezik, futbola gustukoa zuten. Nik pilotan jolastea nuen gogoko baina ezin inorekin jolastu.

Herrian, bakarrik bi mutil handik maite zuten esku pilotan jolastea. Ostiral batean pilotan bakarrik jolasten ari nintzela bi mutiko handiak pilotan jolastera frontoira joan ziren. Iker eta Mikel zuten izena. Nirekin jolasten hasi ziren eta Ikerrek sakearen bitartez pilota atzera bota zuen. Oso bihurria zen (pilota) Mikelek txapa gora eramateko. Bat-batean Mikelek pilotarekin jo ninduen eta lurrra erori nintzen.

Lurretik jaiki nintzenean beste mundu batean nengoen, eta sagu batek lasterketa batera joatea proposatu zidan. Lasterketara basora joan ginen, eta animalia ugari lasterketa hasteko prestatuta zegoen. Ni ere prestatu nintzen eta bat-batean nire gorputza begiratu nuen: pantera bat nintzela ohartuta oso erraz lasterketa irabaziko nuela pentsatzen nuen. Epaila txoria zen eta txistu eginez lasterketa hasi zen. Lehenengoak, zaldia, tigrea, lehoia eta ni ginen. Ez nekien non bukatuko zen lasterketa eta nire lagunari itxarotea erabaki nuen. Saguak berehala harrapatu ninduen eta galdetu behar nuena galdetu nion. Saguak sumendia hasten zen lekuan lasterketa bukatzen zela esan zidan. Sumendia oso urrun zegoen eta biok lehenengo ailegatzeko bizkarrera igotzera gonbidatu nuen eta pixka bat geroago lasterketa bururaino ailegatu ginen. Lehoia, aurreratzean, asko haserretu zen, eta ziztu bizian aurreratu gintuen. Lehoiari jarraitzen ari gintzaizkiola basoaren erdian hanka bihurritu nuen. Sagua nire bizkarretik jaitsi zen eta basotik atera zen; ez dakit nora joan zela pentsatzen ari nintzela, hosto asko zekartzan eta benda batekin bezala hanka hostoz inguratu zidan. Berriro korrika hasi nintzen baina sagua nahi gabe atzean utzi nuen. Berriro bueltatu nintzen, eta lasterkari guztiak zetozela ikusita, berriro korrika hasi eta presarengatik sagua hartzea ahaztu zitzaidan. Minutu bat geroago sagua eta ni korrika, lasterketa burua hartzeko korrika ari ginen. Txoriak lasterketa burua bost minututara genuela ohartarazi zigun. Zoritxarrez sagua ezin nuela eraman esan zigun. Sagua txuria, eta ni beltza pentsatzen ari nintzela, txoria lasterketa buruan zer gertatzen zen ikusteko hegan joan zen. Ondoan lokatzezko putzu bat zegoen eta sagua lokatzez zikinduta kamufflatu zen. Sagua bizkar gainean igota korrika hasi nintzen. Hainbeste atsedean hartuta nire indar guztiakin ekin nion lanari. Hamabi minutu geroago lasterketa burua



urrutira ikusi genuen. Orduan, nire indar guztiekin korrika hasi nintzen eta bost minutu geroago bi minutu ateratzen genien gure jarraitzaileei, eta 100 metrora putzua ikusita, sagua nire bizkarretik jaitsi eta txoriak ikusi gabe sagua garbitu zen. Lasterketa irabazi egingo nuela txoratzten nengoen baina bat-batean ospitale batean nengoen eta zer gertatu zen pentsatzen ari nintzela nire gorputza ikusita Aritz nintzela ohartu nintzen. Nire ama ondoan zegoen eta istripua ikusteko ispilu bat ekarri zidan. Ez nekien zer gertatu zen baina bai eskuineko begia morea nuela. Nire amak zer gertatu zen azaldu zidan eta gau hartan saguarekin podiumean nengoela amets egin nuen.

Bizitza osoko zuhaitza

Leire Garralda Iriarte

I. SARIA: Bigarren Hezkuntza 2. DBH

IER PREMIO: Educación Secundaria 2º ESO

Duela urte asko, bazegoen herri apal bat. Txikia izan arren, mota askotako jendea bizi zen: nekazariak, dirudunak, txiroak, haurrek... Hala ere, guztiak oso atseginak eta alaiak ziren. Beti egoten ziren tabernan edo kalean farrezka eta algaraka. Herri hartan, bazegoen laku handi bat, jendeak asko miresten zuena. Bertan, zuhaitz sakratu bat zegoen, horrek kondaira bat zeukan. Inork ez zekien nork idatzi zuen, baina hala ere, biztanle guztiek sinesten zuten. Honela zihoen:

Zuhaitz hau, jende guztiak dakienez, herri honetako zaharrena da. Hasieran, herritar guztiek oso gogoko izan dute: beti egongo dira bere inguruan jolasten eta korrika, zuhaitzean eskalatuz... Asko maiteko dute denek. Baina mendeak pasata, pertsonak zuhaitzaz nekatu egingo dira: ez dira bere ondoan egongo, hirietara joango dira bizitzera... Ez dute zuhaitza maitatuko, ahaztuta izango dute. Hori gertatzen denean, jakin ezazue zer bait ikaragarria gertatuko dela. Hain zuzen ere, 2000. urtean izango da.

Zorionez, oraindik ez zegoen inor beldurtuta, 1500. urtean bizi zirelako. Gainera, momentu horretan, haur guztiak zuhaitzaren inguruan jolasean zebiltzan. Pertsona helduek, afariak antolatzen zituzten zuhaitzaren ondoan, eta gero, dantza egiten zuten. Jendeak horrela esaten zuen sarritan:

- Zenbat maite dugun zuhaitz zahar hau! –esaten zuen batek.

- Zer egingo genuke zuhaitzik gabe? –beste batek.

Ikusten den bezala, jendea oso zorionsua zen. Baina denbora pasatzen zihoan heinean, 1900. urtea iritsi zen. Orain bai, jendea larritzen hasi zen, eta bata bestearekin eztabaidatzen hasi ziren; ea lurrikara, meteoritoa, izurritea edo mendearen amaiera izango zen esanez. Baina inork ezin zuen asmatu etorkizuna.

Guztiok dakigunez, mundua garatzen hasi zen urte horietan: telebistak agertu ziren, beranduago ordenagailuak... Eta garapena, herri txiki hartara ere iritsi zen. 2000. urtera iristeko 50 urte falta zirela, herriko alkatea ordenagailu batekin agertu zen. Herritar guztiak txoratuta gelditu ziren hark erositakoa ikustean, eta inbidia ikaragarria ziotenez, beraiek ere ordenagailuak erosi zituzten, nahiz eta askok dirurik ez izan. Horregatik, prestamoak eskatu behar izan zituzten.

Jendea laster konturatu zen zoragarria zela ordenagailua. Hori dela eta, gero eta denbora gehiago pasatzen zuten pantailaren aurrean. Semeak telebista ikusten eta gurasoak ordenagailuarekin egoten ziren. Hor ibiltzen ziren interneten informazioa bilatu eta bilatu, eta semeak bitartean murrizki bizidunak ikusten. Gainera batzutan, liskarrak sortzen ziren, bat bestea baino gehiago zegoelako.

Nabaritzen denez, momentu horretan ez zen ia inor gogoratzen zuhaitz zaharraz. Horregatik, egunak eta egunak pasatzen zituen bakarik. Noizbehinka, norbait hurbiltzen zitzaion. Baina ez zen bere ondoan jolas egin nahi zuelako edo maitatzen zuelako. Beste gauza batzuegatik zen: bere



XVII Certamen literario infantil-juvenil en euskera

enborrean maite zuen neska edo mutilaren izena idatzi nahi zuelako, hosto edo adar bat kendu nahi ziolako, bere txakurrak pixa egiteko... Egun batetik bestera, gauzak asko aldatu zitzaizkion zuhaitz gaixoari, eta kondaira bete-betean ari zen betetzen. Hala ere, herriko jendea ez zen konturatu ere egiten, etxean egun osoa igarotzen baitzuten. Gainera batzuk ez zuten jan ere egiten, ordenagailua kenduko zieten beldur:

2000. urtera iristeko bi egun falta zirela, herriko zuhaitz guztiak desagertzen hasi ziren. Lehenengo, lehortu egin ziren. Gero, beraien tamaina txikitu egin zen. Eta azkenean, aztarnarik utzi gabe desagertu egin ziren. Hala ere, zuhaitz zaharrari ez zitzaion ezer gertatuko, bera izan zen bakarra. 2000. urtea iritsi zen, baina ez zen inor gogoratu, denak tontatuta zeudelako. Informatikan eta telebistan pentsatzen zuten bakarrik, ez zeukaten ezer gehiago buruan.

Hori dela eta, ez ziren konturatu zuhaitzik gabe geratu zirela, eta egun hartako gaueko hamabietan, oxigenorik gabe geratu eta denak hil egin ziren. Bestalde, herri osoa suntsitu eta desagertu egin zen, inork ez daki zergatik. Han gelditu zen gauza bakarra zuhaitz zaharra izan zen. Esaten dutenez, oraindik ikusi daiteke hain bakarti eta ahuldua.

Hosto sendagarriak

Iñigo Urria Gorospe

2. SARIA: Bigarren Hezkuntza 2. DBH

2º PREMIO: Educación Secundaria 2º ESO

XXII. mendearen bukaeran, gizakia oso goratuta dago, eta NASAn Martitzera joateko bidaia prestatzen ari dira. Bidaia hau egiteko bi pertsona aukeratu dituzte, Iñaki eta Unai. Oso urduri daude, 2 egun falta direlako espaziuntziaren jaurtiketarako, eta ez dute ia jaten ez lorik egiten.

Eguna iritsi da eta oso goiz esnatu dira. Ez dute ezer gosaldu eta jaurtiketa basera joan dira, bertan jantzi bereziak jarri dituzte eta sartu dira espaziuntzira. Beraien eserlekuetan eseri dira eta atzerako kontaketa hasi da:

- 10, 9, 8, 7, 6, 5, 4, 3, 2, 1... -bat-batean izugarritzko eztanda bat entzun da eta motoreak piztu dira, erreaktoreak piztu dira eta aireratu egin dira.

Ordu batzuk igaro ondoren irratitik esan diete:

- Oraintxe atmosfera zeharkatu duzue eta ordu gutxi barru ilargiaren parean egongo zarete, orduan 199.000.000 Km faltako zaizkizue, hau da, 10 eguneko bidaia gutxi gora behera.

10 egunak pasatu zirenean irratitik mezu bat jaso zuten:

- Martitzetik 50 Km-tara zaudete, seinalea entzuten duzuenen sakatu ezazue ezkerreko botoi laranja.

Minutu erdia pasatu ondoren sirena hotsa entzun da eta botoia sakatu dute. Orduan espaziuntziak bira eman, eta lurreratzeko prestatu da. Baina bat-batean motorrak gelditu eta espaziuntzia Martitzeko lur gorrian etzanda geratu da.

Ateratzeko zulo bat egin dute, atea lurraren kontra trabatuta gelditu baita. Ateratzean 50 cm-ko eraikuntza bat ikusi dute, eta bat-batean bertatik gizontxo bat atera, eta esan die:

- Nortzuk zarete? Zertara etorri zarete?

- Gu lurreko izaki bizidunak gara eta Martitz esploratzera gatoz.

- Baina, ezin duzu esploratu, gu hemen bizi gara, eta gainera, nori bururatzen zaio kanpamentu militar baten erdian horrela aparkatzea?

- Motoreak apurtu zaizkio eta horrela erori gara.

- Ba suertea izan duzue, ni kanpamentu horretako sarjentua naiz, eta oraintxe esango diet nire soldaduei motoreak konpontzeko eta laster izango zarete lurrerantz bueltan; nahi baduzue joan

XVII. Literatur lehiaketa haur eta gazteentzat euskaraz



zaitezte etxola hartara eta jan ezazue zerbait.

Ez dutenez goserik janaria gorde egin dute. Ordu batzuk igaro ondoren espaziuntzia konpondu-ta dago eta aireratu dira. 10 egun pasatu eta gero lurrera ailegatu dira eta jende pila itxaroten zegoela ikusi dute. Jendeak agurtu ondoren, kotxe dotore batean joan dira etxeraino. Bertan konturatu dira etxean ez dutela ezer jateko eta Martitzeko janaria jan dute. Hurrengo goizean esnatzean buruan koloretako granoak dituztela konturatu dira, eta medikuari deitu diote. Medikua Martitzeko janariaren zati bat hartu eta laborategira eraman du.

Hurrengo egunean zuhaitz bat dutela buruan konturatu dira eta medikuari deitu diote. Medikua etortzean ez da harritu, eta esan die 20 egunetan zehar zuhaitzak haziko zaizkiela, baina berri on bat eman die: zuhaitz horien hostoak sendagarriak direla eta gaixotasun guztiak sendatzen dituztela.

Handik aurrera ez da gaixotasun gehiago egongo.

Holidays Zirkua

Gorka Lascort Tanco

2. SARIA: Bigarren Hezkuntza 2. DBH

2º PREMIO: Educación Secundaria 2º ESO

Bazen behin zirku bat oso famatua zena. Zirku horretan parte hartzen zuten pertsona guztiak Portugaletekoak ziren. Ez zekiten beste hizkuntzak menperatzen eta arazo asko izaten zituzten. Zirku horretan denetarik zegoen: animaliak, pailazoak, malabareak praktikatzeko zituztenak, bizikletarekin soka batetik pasatzen zirenak...

Egun batean zirkuan entrenatzen ari zirelarik, zirkuaren zuzendaria etorri zen eta esan zien zirkuan aritzen ziren pertsonei hurrengo astean Amsterdam hirira joan behar zirela, 10.000 pertsonen aurrean beraiek zekizkiten gauzak egitera.

Hurrengo astean Amsterdam hirira joaten hasi ziren. Material guztiarekin 8 kamioi abiatu ziren Amsterdamera. 24 ordu egonda Amsterdamera iritsi ziren. Juanek, 6. kamioia zeramanak, marihuana erosi zuen -2 Kg- erretzen zuelako. Gero emankizuna hasi zen: lehenengo pailazo bat ateratu zen eta txiskeroa ahora sartu eta sua botatzen hasi zen, gero domatzaile bat ateratu zen elefante batekin. Elefantea jauzika, salto egiten, hasi zen. Elefantea, joan aurretik, hanka batekin agurtzen hasi zen. Aktuazioa bukatu orduko guztia jaso eta Portugaleterantz abiatu ziren. Juan, bidaiatzen zuen bitartean, marihuana erretzen hasi zen.

Holandako muga pasatzen ari zirela, hor zeuden polizia batzuk Juan erretzen ikusi zuten.

8.000 euroko isuna jarri zioten. Holandatik drogak ateratzeagatik. Zirkua Parisen deskantsatzen egon zen. Juan oso pobrea zen eta dirurik apenas ez zeukan. Bere lagunek fabore bat egin zioten, bi elefante eman zizkioten diruaren ordean emateko. Hurrengo egunean Frantziako komisaldegira joan zen eta atarian zegoen polizia esan zion ea aldatu ahal zituen bi elefante 8.000 eurorengatik. Poliziak ezetz esan zion. Orduan, Juan zoo batera joan, eta elefanteak saltzen aritu zen, baina ezetz eta ezetz. Zootik Holidays zirkuan lan egiten zuten pertsonengana iritsi arte, pareta batean enkante bat zegoela ikusi zuen; ideia bat izan zuen: enkantean saltzea eta diruarekin isuna ordaintzea.

Hiru egun barru, Frantziako plazara, Juan bi elefanteekin joan zen; zorte ona izan zuen, amerikar aberats batek bi elefanteak erosi zizkion, bakoitza 14.000 eurorengatik.

Hurrengo egunean komisaldegira joan, isuna ordaindu eta beste dirua zirkurako eman zuen.

Azkenean Juanek konklusio bat ateratu zuen: ez zuen inoiz erreko, ezta Holandara joango ere.

Maitasunaren bila

Jene Galarza Goikoetxea

2. SARIA: Bigarren Hezkuntza 2. DBH

2º PREMIO: Educación Secundaria 2º ESO

Ur tanta txiki bat naiz eta Migueltxo daukat izena.

Hodeian jaio nintzenetik, abentura asko izan ditut. Eta kontatuko dizkizuet.

Nire amak, hodeia, paseatzen ari gintuenean, mendiko herri txiki batean erori egin ginen. Nire anai-arrebak, ibaian, lurrian eta pertsonen gainean erori ziren, baina ni etxe zahar baten teilatuan hain zuzen ere. Teilatutik behera irristatu eta lurrera erori behar nintzenez neska txiki batek hartu ninduen. Ez edateko eskatu nion, horretarako nahi ninduelako, txiroa baitzen. Neska jatorra zenez, ibaira eraman ninduen, eta agurtu egin nuen. Ibaitek behera nindoanean arrain batekin gurutzatu nintzen eta hitz egiten egon ginen denbora asko. Guztiok zerbait bilatu behar dugula esan zidan, eta berak maitasun izeneko sentimendu bat bilatzen zuen. Nik ez nekien zer zen hori. Banekien zer zen beldurra, hotza, beroa... Baina maitasunaz ez nuen inoiz entzun, ez sentitu. Arrain hark maitasuna bilatzea esan zidan, horrela jakingo nuela zer zen, berak baita horregatik bilatzen zuen. Arraina agurtu nuen eta joan egin zen. Bilatzen hasi behar nuen lehenbailehen. Lehenengo, beste ur tanten artean behera egin nuen eta herri txiki baten azpian begiratu nuen. Baina orduan gauza batetaz konturatu nintzen. Nola aurkituko dut ez badakit txikia, handia, polita, itsusia... den? Korrika, ibai ertzerantz igo nintzen eta urtxintxa handi bat ikusi nuen, eta korrika, berarengana hurbildu nintzen. Maitasunaz galdetu nion eta, berak aurkitu egin zuela duela urte asko, erantzun zidan. Ezin zela ezta ukitu, ezta ikusi, ezta usaindu! Bakarrik sentitu. Ez nuen ezer ulertzen. "Orduan nola aurkituko dut?" galdetzen nuen nire baitan. Urtxintxak, joan baino lehen, pista bat eman zidan. "Aurkitzen duzunean, sabelean pinpilinpauxak bezala sentituko dituzu eta horrek maiteminduta zaudela esan nahiko du." Eta joan egin zen. Kontent nengoen esandakoarekin, baina ezin nintzen entretenu pentsatzen, bilatzen baizik. Ibaitek ibilbidea jarraitu nuen. Ez nion jaramonik egiten nire inguruan zegoenari. Bat-batean, zerbaiten kontra jo nuen, kainabera bat zen eta orduan pertsona bat egongo zen. Pertsonari deitu eta maitasunaren misterioagatik galdetu nion. Ez zela misterio bat esan zidan, baina esplikatzeko zaila zela. Beste pertsona batengan atrakzioa zela esan zidan. Eskerrak eman eta joan nintzen. Oso kontent nengoelarik, negarra entzun nuen. Ni bezalako neska bat zen. Zer gertatzen zitzaion galdetu nion eta maitasuna ez zuela aurkitzen erantzun zidan. A ze zortea! Biok batera bilatuko genuela esan nion eta aurrera egin genuen.

Denbora pasatu zen eta oso lagunak egin ginen. Itsasora ailegatu ginenean, nik bero asko nuen eta berak ez, lurrunten hasi nintzen eta orduan neskatxa maite nuela sentitu nuen. Sentsazio ona zen, eta esan nion. Maitasuna aurkitu nuela esan nioanean, berak baita aurkitu zuela esan zidan. Baina ez zen nitaz maitemindu, beste tantatxo polit batetaz baizik. Oso triste, hodei batera igo eta nire anaiarekin berriro egon nintzen. Maitasuna oso polita izan ahal zen baina bakarrik maite bazaituzte, bestela ez da horrela izango.

Handik aurrera ez nintzen berriro maitemindu, bakarrik lagunak izan nituen eta horrela ez nuen gehio sufritu beharko.

XVII. Literatur lehiaketa haur eta gazteentzat euskaraz





XVII Certamen literario infantil-juvenil en euskera



Bertso paperak modalitatea

Modalidad **“Versos escritos”**

Ea irabazten dudan

Mikel Lasarte Cía

I. SARIA: Lehen Hezkuntza 4. maila

IER PREMIO: Educación Primaria 4º curso

Doinua: Triste bizi naiz eta.

Nik nahi dut lehiaketa
hauxe irabazi
galtzaile banaiz ere
ez dago hain gaizki
bertsoekin nahi dut nik
oso pozik bizi
eta kirolarekin
osasuntsu hazi

Bertsoak

Garazi Iturbide Juanena

I. SARIA: Lehen Hezkuntza 6. maila

IER PREMIO: Educación Primaria 6º curso

Gaur euskara egin da
gu guztion jabe
oraintxe gu bagaude
zuen denon pare
Sortzen-era etorri naiz
arazorik gabe
gu guztiok baikaude
euskararen alde

Festa politena da
Takonerakoa
ezerk ez du gainditzen
inolaz gaurkoa
bertso batzuk entzunda
daukagu nahikoa
ondo pasatu egun
polit magikoa



Denboraren makinan sartu eta dinosaurioen arora iritsi naiz

Asier Ieregi Aranburu

I. SARIA: Bigarren Hezkuntza I. DBH

IER PREMIO: Educación Secundaria 1º ESO

Doinua: Furra-furra.

1) Denboraren makinan
sartua naizela
kriston buelta eman ta
hori ez da ez gela
hegaka ikusi dut
kriston bitxo itzela
bainan seguru nago
txoria ez dela

2) Ez dakit non nagoen
banago galduta
ingurura begiraz
nago txundituta
basoz inguraturik
nago erotuta
orain bai nagoela
oso izututa

3) A ze atsekabea
nolako harrera
hemen nago galduta
rexekin batera
ihes egin behar dut nik
hemen ezin gera
orain nola demontre
joango naiz etxera



Euskara beti

Edurne Arana Moriones

I. SARIA: Bigarren Hezkuntza I. DBH

IER PREMIO: Educación Secundaria 1º ESO

Doinua: Maritxu nora zoaz.

- 1) Klasetik aterata
guztiz nau lotsati
zergatik ez erabil
euskara ia beti
- 2) Beti erdera entzun
euskara arraro hitz
kanpamentu batean
euskara hitz ta pitz
- 3) Etxera joan ta gero
gure lagunekin
ta erdera hasita
denok farra egin
- 4) Ama etorri susto
handia hartu nuen
denek korrika euskaraz
hitz egin genuen
- 5) Ama konturatu zen
ta bronka handia
negarrez hasi nintzen
bai ateraldia
- 6) Lagunak joan ondoren
tristetu nintzen ni
amak bronka handia
bota zidan niri



Aurkibidea / Índice

Ipuinak / Cuentos

SARIA / PREMIO	EGILEA / AUTOR	ORR. / PÁG.
3. maila LH/3° E.P.		
1. saria Xaxi katukumea	Garazi Retegi Goñi	5
1. saria Pokima eskimala	Oihane Lasheras Zapata	5
1. saria Lore itsusia	Amaia Izar Leatxe Larunbe	6
2. saria Gaztelu suntsiezina	Ander Ruiz Mauleon	7
2. saria Neska txiki bat	Leire Vergara Contreras	7
2. saria Urrezko eraztuna	Miren Jiménez Muñoz	8
4. maila LH/4° E.P.		
1. saria Galaxiatik bestaldera	Garazi Azkoaga Iholdi	9
1. saria Eltxo batengatik lan guztia	Andrea Urriza Pascual	10
2. saria Baserriko txerria	Maider Urzelai Anzizu	10
2. saria Mikelen oporrak	Julen Martínez Azpiroz	11
5. maila LH/5° E.P.		
1. saria Lapurreta bitxia	Asier Gordo Baztan	12
1. saria Aritz oihaneko erregea	Lander Telletxea Garaioa	14
2. saria Iker eta etorkizuna	Asier Garmendia Berango	15
2. saria Kikak futbolaia izan nahi du	Erika Morales Esteban	16
6. maila LH/6° E.P.		
1. saria Ainararen bakardadea	Amaia Andueza Lizarraga	17
1. saria Familia zaratatsua	Ander Torres De Pablo	18
1. saria Liburu magikoa	Nerea Rodríguez Hervás	20
2. saria Matematikako lehiaketa	Paula Urzainki Rekarí	21
2. saria Aintzira baten ertzean	Miren Josune González Etxenagusia	22
2. saria Kremailera, botoiak eta kateorrazak	Janire Perales Ullibarri	23
1. DBH/1° E.S.O.		
1. saria Bibolin magikoa	Asier Ilegi Aranburu	24
1. saria Elektrovile	Inaxio Perales Moreno	27
2. saria Surfariak	Odei Sagardoi Soria	28
2. saria Lee samuraia	Adrian Iglesias Martín	29
2. DBH/2° E.S.O.		
1. saria Aangen kondaria	Jon Urbizu Mendivil	31
1. saria Ipuina	Iñigo Saldias Eseverri	32
1. saria Bizitza osoko zuhaitza	Leire Garralda Iriarte	33
2. saria Hosto sendagarriak	Iñigo Urria Gorospe	34
2. saria Holidays zirkua	Gorka Lascort Tanco	35
2. saria Maitasunaren bila	Jene Galarza Goikoetxea	36

Bertso paperak / Versos escritos

SARIA / PREMIO	EGILEA / AUTOR	ORR. / PÁG.
4. maila LH/4° E.P.		
1. saria Ea irabazten dudán	Mikel Lasarte Cía	39
6. maila LH/6° E.P.		
1. saria Bertsoak	Garazi Iturbide Juanena	39
1. DBH/1° E.S.O.		
1. saria Denboraren makinan sartu eta dinosauroen arora iritsi naiz	Asier Ilegi Aranburu	40
1. saria Euskara beti	Edurne Arana Moriones	41

